

ARGIA



Funtzio aldaketa, herri antzerkian

PEIO BERTERRETXEREKIN
ELKARRIZKETA

26-34. orrialdeak

2.899 | 2024 / 12 / 29 | 4,00 €



*Luxua eta kutsadura,
eski estazioetako
musika festibaletan*

12 | INGURUMENA



*“Ezinbestekoa da
gizonak zaintzera
eta lan ez-ordaindua
egitera behartzea”*

16 | LORE LUJANBIO



LARRUN #302
Kongo eta
kobaltoa



WWW.ILBELTZA.EUS

EUSKAL
NOBELA
BELTZAREN
ASTEA

(H)ILBELTZA

BAZTAN, 2025EKO ILBELTZAREN 20TIK 26RA

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ARGAZKIA: SABINA HOURCADE / ARGIA CC-BY-ND

Iritziak

- 21 | ASIER BLAS
- 22 | SONIA GONZÁLEZ
- 23 | HIRUKI LARROXA
- 23 | EDU ZELAIETA
- 24 | NEKANE TXAPARTEGI

Finkoak

- 44 | ARGIA KOMUNITATEA
- 45 | DENBORAREN MAKINA
- 46 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



16 | LORE LUJANBIO

Zaintzari buruzko tesia egin du militante transfeministak eta Danele Sarriugartek egin dion elkarrizketan azaldu du zer dagoen neurtzen, ordaintzen eta banatzen ez den zapalkuntza horren oinarrian. Kapitalismoa eta patriarkatua gurutzatzen diren puntu horretan aritu dira zaintzaz, amatasunaz eta zapalkuntza kolonialistaz, besteak beste.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Eski estazioetako festibaletan kutsadurak goia jotzen du

Urko Apaolaza

26 | KULTURA | PEIO BERTERRETXE

“Tresna sozial izatetik, produktu kultural izatera pasatu dira plaza antzerkiak”

Maddi Sarasua

35 | NAZIOARTEA

“Teslak ez du nahi langileek iritzia emateko eskubidea izaterik”

Alfons Perez (Climatica.coop / CC-BY-SA)

38 | GIZARTEA

Armagentzari loturiko euskal enpresa eta erakundeak 70etik 200 baino gehiago izatera pasa dira

Zigor Olabarria

40 | INGURUMENA | VIDALINA MORALES

“Kaleetan gerra tankeak ikustea normalizatu dugu, gerran egon gabe ere”

Julene Flamarique


 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZTAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

 KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Gobierno de Navarra  **Nafarroako Gobernua**

Jabetza

 Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

 Axier Lopez, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Julene
Flamarique, Lander Arbelaitz, Leire Artola,
Leire Ibar, Manex Moreno, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Urko Apaolaza,
Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandiandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

 Ane Gaztelumendi, Aloña Soraluze,
Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

 komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

 Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:


 KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



 software
productions

Doan eta libre

 ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,
zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza
aitortu eta baldintza beretan eginez gero.


 Lizentzia hau baliagarria da testuentzat
eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan,
ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

 Ekoedizioaren Institutuko
bazkide da ARGIA


OLATUKOOP

 Ekonomia sozial eraldatzailearen
sareko kide gara





Urte honetako azken argazkia dugu hauxe.
Gabonetako argi artifizialak baino nahiago ditugunez naturak sortutakoak,
Europako sumendirik aktiboena den Italiako Etna mendiaren indarrarekin
agurtu nahi zaitugu, irakurle, hurrengo urtera arte.

 **MARCO RESTIVO / REUTERS**

ETAren armagabetzeaz Jaurlaritzak egindako bertsioa gezurtatu dute

ERREDAKZIOA

ETAren armagabetzean 2017ko urtariletik apirilera gertatutakoen beren bertsioa eman dute bakegileek, Baionan egindako agerraldian. Eusko Jaurlaritzak armagabetzeaz egin zuen kontakizuna “faltsua eta interesatua” izan zela adierazi du Noel Etxeberri *Txetx* bakegileak, eta egindako kontakizuna gaitzetsi du. Jaurlaritzak bakegileengan inoiz konfiantzarik ez zuela izan azaldu du. Armagabetze prozesuari buruzko dokumetu mardula aurkeztu dute.

Luhusoko atxiloketen zortzigarren urteurrenaren egunean, prentsaurrekoa eman dute bakegileek, gertatutakoaren beren bertsioa emateko, *Berriak* jaso duenez. Eusko Jaurlaritzak 2019an, *ETAren armagabetzean eta desagitean Eusko Jaurlaritzak egindakoaren deskribapena eta balorazioa* txostena argitaratu zuen. Horren ondoren, Mixel Berhokoirigoin eta Noel Etxeberri bakegileek agiria plazaratu zuten Jaurlaritzaren bertsioarekin ados ez zeudela adierazteko. Orduko hartan esan zuten bi aldeen arteko bilkuren berri emango zutela momentua helduta-koan. Orain eman dute pauso hori eta 68 orrialdeko txostena prestatu dute, puntuz puntu Eusko Jaurlaritzaren hainbat

Hasieratik “mobilizazio duin bat” aurreikusi zutela diote bakegileek, “alde bakoitzeko biktimak eta sufrimenduak errespetatuko zituen”

balorazio eta esan gezurtatzeko. Bilkure-
tako edukiak ere txostenean daude: *Bakegileen azalpena ETAren armagabetzearen azken faseko gertakari errealei buruz.*

GEZURRAK, ETA “IZAN EZ ZUEN ROLA” BERE BURUARI AITORTUTA

Bakegileek diote “Frantziako Gobernuak izan zuen rola bere buruari egotzi” diola Jaurlaritzak, “modu pixka bat patetikoan”. Bakegileek azaldu dutenez, Frantziako Gobernuak armagabetzea egiten uztea erabaki zuen eta Espainiako Gobernuari jakinarazi zion.

Gaitzetsi dute Eusko Jaurlaritzak iradoki izana apirilaren 8ko eguna antolatzeko negoziaketetan eragin zutela. Bakegileek komunikazio bide zuzena zuten Parisekin.

ETAren armagabetzea apirilaren 8an egingo zela *Le Monde* egunkarian iragarri zuten eta bakegileek kritikatu dute Jaurlaritzaren iragarpen hori oztopatzen saiatu zela.

Armagabetzeari dagokionez, Jaurlaritzak esan zuen bakegileen asmoa zela armen “suntsiketa eta garbiketa”, eta hala egin izan balute “delitu larriak leporatu ahal izango” zizkietela. Bertsio hori gezurtatu dute bakegileek eta azaldu dute armak “neutralizatzeko” materiala baizik ez zutela erabili. Jaurlaritzak txostenean jaso zuenez, ETAren eta bakegileen asmoa zen Luhusokoa moduko operazioak errepikatzea. Bakegileek azaldu dute Iñigo Urkullu lehendakariari jakinarazi ziotela “zerbait masiboagoa eta denboran kontzentratuagoa” egiteko asmoa zutela. Bestalde, bakegileek gaitzetsi dute Jaurlaritzak esan izana hasieran apirilaren 8rako “festa” bat antolatu nahi zutela eta Jaurlaritzak konbentzitu zituela horrela ez egiteko. Hasieratik “mobilizazio duin bat” aurreikusi zutela diote bakegileek, “alde bakoitzeko biktimak eta sufrimenduak errespetatuko zituen”.

Desadostasun handiena behatzaileen tokiak eragin zuen. Bakegileek diotenez, Jaurlaritzak ez zuen nahi herritarrak armak entregatzeko lekuan egoterik, eta hala jaso zuen momentuaren berri txostenean: “Frantziako Polizia biltegi-tara hurbildu zen haien kontrola hartzera. Kopapen horietan talde txikiak zeuden operatiboa behatzen, distantzia batera eta Poliziaren kontrolpean. Zorionez, ez zen istilurik izan”. *Berriak* Frantziako Polizia gordelekuetako batera ailegatu zeneko bideo baten berri eman du, bestelako bertsioa ikusarazten duelako: polizia-buruek behatzaileak agurtu zituzten eta denei eskua ematen zieten.

Bakegileen salaketari egun bat geroago erantzun zion Jaurlaritzak. “Jaurlaritzak esateko zeukan dena esanda dago txosten horretan” adierazi zuen Maria Ubarretxena bozeramaileak, Jaurlaritzak 2019an egindako txostenari erreferentzia eginez. ●



MATERIALISMO HISTERIKOA

Idatzi nahi nuen



UXUE APAOLAZA LARREA

Idatzi nahi nuen gabonetako argien alde, eta urteroko ohitura bilakatu aldarrikatzea, kaleak argitzen dituzten aro honetan, espazio publiko apain, alai eta gozagarri bat, klase ikuspegitik. Baina, noski, espazio publiko epelak ere bai, zenbait gazte liburutegietan liburuak alderantziz irakurtzen dakitela antzesten aritu beharrik gabe berotan egoteko, trasteleku bat ematen ez duen nonbait. Edo, agian, etxe bat-edo balute, bizigarria, apaina edukitzeko, lagunak gonbidatzeko, etxera, edo elkartera. Beharbada esan dezaket festa katolikoak direla eta gauza horiek, oraindik zenbateko zama elizak, eta beste errazkeria batzuk. Baina ez hainbeste, klasean “norentzat” lantzeko gabonetako opariak aprobetxatu dituen irakasle honen bi ikaslek “ezer ez”, eta “inorentzat ez” erantzun behar izan baitute. Baina hori ez da elizaren errua. Hori batzuetan eragiten dituzten bazterketen kontziente ez diren ni bezalako laiko enrollatuen errua da. Oporrak. Atsedeen beharra. Baita oporretan ere. Nekearena, ordea, gehiegi atera dut aurten. A, ba hori, lana emango diguna opor hauetan, opariak egitea. Ez, opariak egitea ez, kontsumismoa (eta ingurumena, eta zapalkuntzen gaineko errua). Eta haurren kasuan gainera magia mozorro-tuta. Erabaki dut poza pozez inposatzen duten pertsonaia horiek sortzen didaten psikopatia susmoari buruz idatziko nuela ere. Eta, gainera, hala da. Bi heldu mozorro-tuta dira, gezurretan. Ez fikzio bat antzesten: hartzaileek ez dakite gezurra denik. Eta haur bat bestearen atzetik artatzen dute herriko plazetan, beren ilusio sinesberaz elikatzen dira, eta hurrek gezur bati entregatzen diote beren ilusio intimoen. Irribarreitsu engainatzen dituzte. Masan. Gezurra badirudi ere, baztertu egin dut gaia. Baztertu egin ditut denak. Hurrengo urtera arte. Nik pozik hartuko ditut oporrak (eta nekatuta, esan behar nuen). Ondo hasi, beraz, argiz eta epelez inguratuta (mezei baduzue), eta kontuz jan mahatsak. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

BADATOR OLENTZEROREN MAGIA!



MOTZEAN

Mozal Legea baliatuta Ernairen kontra jarritako Gasteizko isunak baliogabetu egin ditu epaileak, eta Bilbokoak, berriz, 2.500 eurotik 1.800era apaldu (aurrez ordainduz gero, 900 eurotan). Ernaik dio frogatuta gelditu dela “euskal gazte antolakundearen aurkako operazioa” izan zela isuntze masibo hori.

Dominique Pelicot Gisèle-ren senar ohiari 20 urteko kartzela zigorra ezarri diote (bortxaketagatik zigor handiena) eta fiskalak eskaturikoa baino zigor apalagoak beste 50 bortxatzaileei.

Bilboko Urretxindorra ikastolako ikasle eta ikasle ohien talde batek zentroko irakasle baten partetik jasandako sexu abusua zerrendatu ditu, eta salatu du ikastetxeak gizona babestu duela.

2023az geroztik Espainiako Estatuan konpainia energetiko handiei ezartzen zaien zerga bertan behera geratu da, EAJ, Junts eta PPK Espainiako Kongresuan hala bozkatu ostean.

Patri Urkizu hil da. Euskal Filologian doktore, hamarnaka lan argitaratu zituen poesian, nobelan zein saiakeran, baita biografiak eta bertso bildumak ere. Antzerkigintza ikertu zuen.

EKONOMIA

Negu gorria



NAROA ELORTZA
GORROTXATEGI

Aurrekontuak eta urteko kontuen itxiera, ez da besterik urteko garaiotan; etxeko ekonomiatik hasita, partekatzen ditugun espazio sozioekonomiko gehienetara. Enpresa handiak hasi dira kalkulagailuak ateratzen eta 2025ari begira asmo handiak martxan jartzen. Erakunde eta eragile txiki eta ertainak ere, hementxe, sosak eta erronkak nondik atera asmatu nahian. Proiektu eta amets handiak ditugulako, eta gehiegitan zuloz betetako poltsikoak.

Urte berriari begira panorama eskasa dugu inguruan: Siemens Gamesa 423 behargin kaleratuko ditu, Astilleros Balenciaga hartzekodunen konkurtsoan sartuko da, Gasteizko SDA Factoryk atea itxiko ditu, BSHk Eskirotzeko 660 langile kaleratuko ditu... eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lurraldeko ekonomia sozial eraldatzaileko enpresak baztertzea erabaki du. Besteak beste, Olatukoop sareak bultzatutako Koopfabrika ekintzailatza programa ez babestea erabaki du, eta formakuntza zein ahalduntze kooperatiboari laban-kada eman dio. Neguko hotza hezurretaraino sartu zaigu, hainbat proiektu kooperatibo eta eraldatzaile arriskuan jarri baitituzte.

Dirulaguntzei esker, termino kapitalistetan bideragarritasun zalantzagarria duten hainbat eta hainbat proiektu aurrera atera ahal izan dira. Txikiei eta sareei emandako laguntzek alternatibak eraikitze baldintzak sortu dituzte. Baina laguntzekiko dependentzia ikaragarritzko arriskua da burujabe izan nahi duten proiektuentzat. Horregatik dira hain garrantzitsuak Koop57 moduko sareak, eraldaketa soziala eskuin politiken menpe egon ez dadin.

Honekin doakizue, beraz, Koop57ra batzeko gonbidapena, baina baita negu honetan elkar babesteko eta indartzeko deia ere. Ekonomia sozial eraldatzaileak zaintza behar duen moduan, langile borrokak guztion indarra behar duelako. Eutsi! ●

ANALISIA



ZARAUZKO UDALA (2021)

Zure herriko Baltasarrek ere 'blackface' egiten du?

LEIRE ARTOLA ARIN

Badatoz urteko asterik magikoenak, edo hobe esanda, kontsumistenak. Askori gustatuko litzaieke opariak Olentzeroren zakutik jasotzea, zerutik erorita bezala, baina errealitatea da Gabonetan gure zakutxoak direla gehien sufritzen dutenak, poltsikoak hustuta hasten dugula urtea. Magiaren izenean, etxeko txikiaren ilusioa ezin zapuztuko baitugu. Zenbat konfiantza ikazkin xume musu-gorriaren ahalmenean.

Baina euskal tradizioak sutsuki defendatzen dituzten askok ere ez dute nahikoa Olentzerorekin, eta Errege Magoen etorrera ere ospatzen dute. Gure kaleak desfile koloretsuz betetzen dira, eta hiru gizonak jantzi ponposoak eta *urrezko* bitxiak luzitzen dituzte pajeen babesean. Zein da zure erregea? Kontuz, herri askotan badago errege bat, ikatzez belztutako Olentzeroren aurpegiak baino margo beltz gehiago duena, eta haurrari masaila zikinduko diona muxu ematerakoan. Bai, Baltasar da, Baltasar zuria, 2024an oraindik ere *blackface* praktika arrazista egiten jarraitzen duena.

Ez, kritika ez da "faltsua eta *kutrea*" dela aurpegia margotuta izatea, eta umeek atzeman dezaketela ez dela "benetako" Baltasar. Ez. Kontua da aurpegia beltzez pintatzea pertsona arrazializatuen aurkako iraina izan dela duela hainbat mendetatik (XIX. mendean lortu zuen arrakasta AEBetan, baina XV. mendeko adibideak ere badaude), eta hala izaten jarraitzen duela. Antzerki eta musikaletan erabiltzen zuten "mozorro" hori pertsona zuriek, eta esklabizatutako pertsona beltzak irudikatzen zituzten, azala beltz-beltzez eta ezpainak lodi eta gorri makillatuta, haien itxura karrikatura bihurtzeko. Alegia, umorearen izenean zuriek barre egiten zieten beltzei, Ana Bueriberi kazetariak Afrocolectiva hedabidean gogorarazten duenez.

Umorearen muga horiek pasa zituen, hain zuzen, 2020an ETBko *Barre Libre*a saioak, eta Bizkaiko SOS Arrazakeriak eta beste zenbait elkarten salatu zuten telebista saioan egindako *blackface*-a arrazista zela. Salaketa horri esker eszena ezabatu eta barkamena eskatu zuten egileek. Arrazakeria zer den ondotox dakiten AEBetatik hasita, munduko txoko ugarian pentsaezina da egun *blackface*-a kalean eta lasai ederrean egiten jarraitzea. Euskal Herrian oraindik ez gara konturatu? Egia da azken urteetan herri batzuetan praktika arrazista hori egiteari utzi diotela, eta eztabaida piztu izan dela, Iruñean, kasu. Baina oro har ez dago kontzientziarik, bestela ez lirakeke hainbeste Baltasar makillatu ikusiko urtarilaren 5eko kabalgatetan; gaian oso galduta gabiltza, "aurrerakoenok" ere bai. Olentzerok aurten magia antiarrazista ekarriko du gurera? Ala eraginkorragoa izango da geuk aldatzea Baltasar arrazista? ●

Eskolen fusioak

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Adurtza-San Ignacio, Santa Maria-Landazuri eta Umandi-Padre Orbiso ikastetxeen arteko fusioa iragarri du Eusko Jaurlaritzak.

Zerk motibatuta?

Zein da halako erabakia hartzeko irizpidea eta abiapuntua? Eusko Jaurlaritzaren hitzetan, ikastetxe horietako hezkuntza proiektuak hobetzea eta segregazioari aurre egitea ekarriko du neurriak. Sindikatuen esanetan, ikuspegi ekonomizista hutsa dago atzean, jaiotze-tasa txikitzen ari dela-eta, ikastetxe kopurua murrizteko asmoz.

Eskola gutxiago eta handiagoak (makroagoak) dira benetan bidea hezkuntza proiektuak hobetzeko? Ikasle eta lerro gehiago pilatuko dituzten eskolak?

Nola bateratu?

Zenbat eta nola hartuko dute parte hezkuntza komunitateek? Izan ere, horiekin adostutako prozesuaz mintzatu da Eusko Jaurlaritzak, baina aldebakarrez jokatu duela eta ez duela inongo prozesurik adostu leporatu diote sindikatuek, ikastetxe horietako hezkuntza komunitate batzuk iturri gisa erabilia.

Prozesua benetan parte-hartzailea izango bada, zein rol hartuko du Hezkuntza Sailak eta nola bideratuko da bi ikastetxeetako hezkuntza komunitateen adostasuna? Adibidez, bi hezkuntza proiektu, pedagogia eta eredu ezberdin dituzten eskoletan, zein gailenduko da? Edota osotasunean D ereduaren duen ikastetxea B ereduarekin elkartzean, zein izango da eskainiko den (edo diren) hizkuntza ereduak(k)?

Zein baliabiderekin?

Bateraturiko ikastetxeetan, baliabide pertsonalak mantenduko dira hurrengo urteetan? Plaza eskaintza ere mantenduko da? Ala pixkanaka, sindikatuek susmatu moduan, irakasle eta langile kopurua txikitzen, plaza kopurua gutxiagotzen, eta ondorioz eskola publikoaren sarea murrizten joango da?

Espazioak birplanteatuko dira? Azpiegiturak egokitu eta berritzeko baliatuko da aukera?

Eskumen berriak

 ERREDAKZIOA

Transferentzien Batzorde Mistoa bildu da Madrilan, eta han adostu dute bi eskumen EAera eskualdatzea, Espainiako Gobernutik Eusko Jaurlaritzara.

Itsasertza kudeatzeak zer dakar?

Itsasertzaren Antolaketa eta Kudeaketa eskumenak "aukera emango digu Euskadiko kostaldeari lotutako proiektu eta azpiegitura berri guztien inguruko erabakimena izateko eta eskumen honi esker, proiektuak bizkortu ahal izango ditugu eta itsasertza lurralde-antolamenduko estrategia orokorraren baitan txertatu", adierazi dute Jaurlaritzatik. "Hemendik aurrera, Euskadik, itsasorako sarbideetan urbanizazio-proiektuak, pasealekuak edota bidegorriak egiteko baimenak kudeatu eta eman ahal izango ditu", baita komunikazio lineak, ontziralekuak, pantanalak edo ontzitegi finkoak eraikitze kontzesioak ere.

Halaber, "trantsizio energetikorako funtsezkoak diren azpiegiturak bultzatu ahal izango dira", hala nola linea elektrikoak edo haize-sorgailuak; eta arrantza-proiektu berriak ere bai, Getaria parean hegalaburra gizentzeko kaiolak kasu.

Kultura arloan zer berri?

Zinematografia eta Ikus-entzunezko Jarduera da beste eskumena. Jaurlaritzak zinema eta ikus-entzunezkoen garapenerako eta ekoizpenerako funts publikoak kudeatu eta indartu ahal izango ditu, euskarazko ikus-entzunezko lanak ekoizteko, banatzeko eta erakusteko. Ikus-entzunezkoen alfabetatze-politikak ere gauzatu ahal izango dira (zinema-aretoak sustatzea, adibidez).

"Zinematografia eta ikus-entzunezkoak gaztelaniaz besteko hizkuntza koofizialetan sustatzeko funtsari egindako ekarpenen bilketa kudeatzeko gaitasuna ere izango du Euskadik. Lehentasunezkoa da ikus-entzunezko eremuan euskara indartzea eta horretarako baliabide gehiago izatea".

Zer falta da?

Eusko Jaurlaritzak iragarri du datozen asteetan itxiko dela migratzaileen lan baimenen eskualdaketa: "Aurreikuspena da, 2025ean atzeritarren lan baimenak Euskadin izapidetzen hasi ahal izatea".

TEKNOLOGIA

Gai izango ez garenean



DIANA FRANCO EGUREN

Pertsona nagusiekin edo aniztasun fisiko eta neuronalak dituzten pertsonekin lanean zaudenean, dugun gizartean gaitasunaren ideiak espezie bezala asko mugatzen gaituela ohartzen zara. Hau da, dugun sistemak gauzak modu espezifiko batean egiteagatik jartzen zaitu balioan, eta modu horretan egiten ez duena ezgaia da sistemarentzat.

Noizbait, teknologiak gure gaitasunak handitzeko luzapenak izan ziren; nik adibidez betaurrekoei esker hobeto ikusten dut. Egun, ordea, digitalizazioarekin gure gaitasuna areagotu beharrean, ordezkatzen ari direla esango nuke. Aurreko adibidearekin jarraituz, gaur egun telefonoak nire begien ordez “ikus dezake”, eta ikusten duena azaldu.

Dugun eredu kapitalistan, etekinak sortzeko bideak bi izan ohi dira: balioa sortu edota kostuak murriztu. Horregatik, kapitalaren jabeek bideak asmatzen dituzte pertsonon denbora eta gaitasunak etekin bilakatzeko. Etekin handiagoa bizitza hobea, mundu ikuskerara horretan, pertsonen gaitasunak ordezkatzen dabilzan teknologiak ugaritzen doaz. Etekinak sortzeko, kapitalaren jabeen ekuazio linealean, kostua eta gaitasuna euren eskuetan soilik dauden aldagaiak izan arte ez dute etsiko. Hori lortzen dutenean, ez gara sistemarentzat gai izango.

Lorena Pérez Hernandez Hizkuntz Kognitiboan adituak hitzaldi bat eman berri du nire herrian. Beste hainbat gauzaren artean, honakoak esan zituen: “Hiztunak burujabeak gara, behar dugun bezala hitz egiten dugu. Hizkuntzaren azpiko helburua ez da komunikatzea, hizkuntzak baimentzen digu pentsatzea. Hizkuntzak errealitatea sortzen du”. Hizkuntza sortzeko gaitasun hori galtzen ez dugun bitartean, errealitate berriak sortzeko aukerak hor izango dira, baita gaitasunaren ideia errealitate eraldatzeko ere. ●

NAZIOARTEA



Krisi autoktonoa ala inportatua?

MIKEL ARAMENDI

Hego Koreako presidente Yoon Suk Yeol-ek abenduaren 3ko arratsuan gerra-legea ezarriz sutu zuen krisi politikoa itzaltzetik oso urruti dago oraindik. Nahiko argi badago ere kolpea sustatu zutenak ez direla irabazten ari. Oraingoz.

Berez, gau hartan bertan galdu zuten kolpistek enbido erabakigarri bat, parlamentuak Yoonen aldarrikapena bertan behera uztea eragozteko lortu ez zutenean; Malaparteren klasikoa berrikerri beharko du baten batek. Berriki, parlamentuan berriro ere, galdu zuen Yoonen funtsezko beste tanto bat, bigarren saialdian bere *impeachment*-ak aurrera egin zuenean, bi hereneko gehiengo ondo gaudituta. Baina Yoonen ez du amore eman, ezta krisi politikoa konponbidean jartzeko ezinbestekoa dirudien bere dimisioa eman ere. Itxaropenen bat baduela esan liteke.

Bizkitartean, epaile eta poliziek konplota ikertzen jarraitzen dute. Lehen unean, eta batez ere urrutitik begiraturata, Yoonen burutazio zoroa zirudiena, estatu-kolpe argi eta ohiko samarraren tankera osoa hartzen joan baita abenduaren 3koa, ikerketek aurrera egin ahala: “neutralizatu” beharreko aurkari zerrendak, okupatu beharreko gune estrategikoak, *putcha* (estatu kolpea) zuzitzeko arazoibideak, agindu zehatzak jasota zeuden goi-arduradun militarrek... Jakinaren gainean zeudenen eta ezjakintasun deliberatuan egozarazien artean arrakala gotor batekin.

Apenas moztortutako erregimen militarra, Yoon eta haren gobernu zibiko-militar bat gorenean zela, ezartzea izan behar zuen helburua, ezinbestez.

Baina, orduan, lehendabiziko itauna litzateke: zertarako halako zerbitz? Une honetan Hego Korea izan ditzakeen buruhausteetako bakarra ere hartara hobeto kudea litekeela pentsatzea ez dirudi batere zentzuzkoa. Antza denez, Finantza eta Ekonomia ministroa izan zen gerra-legea ezarri atarian egindako gobernu-bileran ozenkien aurka agertu zena; eta ez da kasualitatea. Parlamentuan gehiengo Yoonen oposizioko indarrean eskue-tan egoteak hari sortarazten zizkion endredoak, bestalde, ez lukete indar armatuen buruhauste izan behar... Orduan?

Kolpe-saiaketaren prestakuntzan eta egikaritzapenean erabakigarria (hain erabakigarria ezean, atxilotu dutenean bere buruaz beste egiten ahalegindu omen) izan den Kim Yong-hyun, Defentsa ministroaren joan-etorri eta egitasmoek dezente lagun dezakete abenduaren 3koa argitzen. Batez ere, hark eta Estatu Batuen Indo-Pazifikoko Komandoaren burua den Samuel Paparo almiranteak azken hilabete hauetan erakutsi duen erabateko sintonia kontuan hartzen badugu.

Baina horretarako, Yoonen (auto) kolpea, autoktonoa baino gehiago inportatua dela pentsatzen hasi beharko genuke. ●

Otsoek abeltzaintzarekin duten elkarbizitza, eztabaida-iturri

 JON TORNER ZABALA

Urriaren 19an, Xiberoko Batzorde Sindikalak bozketa egin eta adostu zuen lurraldea "babesteko zaila den eremu gisa" (ZBD) izendatzeko eskaera abiatzea, otsoaren "arriskuari" aurre egitea helburu. Artaldeei eraso egin ez badie ere, artzainek otsoari tiro egiteko baimena jaso dezakete.

Erabakia 2018an hasitako hausnarkearen fruitua dela eta "laborantza alorreko aktoreak, tokiko elkargoak eta estatuaren ordezkariak biltzen dituen kolektibo batekin adostuta izan dela" azaldu du Batzorde Sindikalak, Mediabask-ek frantsesez eta ostean Kazeta.eus-ek euskaraz plazaratutako Félix Thommen-en erreportajearen irakurri daitekeenez. "Larreak kudeatzen dituen batzordeak eta bere lehendakariak –Jacques Barreixek– zuhur jokatzeko dute, jakinik Xiberokoan, beste leku batzuetan bezala, otsoaren gaia sentibera dela", dio kazetariak, "are gehiago, tiro egiteko baimenak zabaltzea jokoan delarik".

Frantziako Estatuan araudia "biziki zorrotza" da. Artzainek haien artaldea babestu behar dute hesi elektrikoak, txakurrak eta zaintza indartua erabiliz. Baldintza horiek betetzen badira, eta erasoak errepikatzen badira, salbuespen neurri bezala, "defentsa tiro sinpleak" egiteko baimena eskuratu dezakete. Alta, ZBD izendapena duten lurraldeetan babes neurriak ezarri gabe eta artaldeei eraso egin gabe ere, abeltzainek otsoari tiro egiteko baimena eskuratu dezakete.

"Ardien gainean babes neurriak ezartzea ezinezkoa" dela argudiatu du Xiberoko Batzorde Sindikalak, otsoek egingandako erasoak aipatuta.

"EZ DA HORI ARAUAK ZUEN ASMOA"

Félix Thommen kazetariak Patrick Leyrissoux-en hitzak ere jaso ditu erreportajearen. Ferus elkarteak Pirinioetan duen ordezkaria da bera. Badira 20 urte bere elkarteak lan egiten duela harrapari handiek eta etxeko artaldeek lurraldea partekatzen dezaten.

Zuberoarrek egingandako eskaerari dagokionez, azaldu du geroz eta lurralde



gehiagok nahi duela ZDP izendapena lortu: "Gaur egungo joera da eskualde bakoitzak eskatzen duela izendapena, eta hori aski errezki lortzen dela. Iritsi gaitzke egoera batera zeinean bakoitzak ZDP bat eskatuko duen, dagokion lurraldean espeziea desagerrarazteko xedez". Bere hitzetan, hori ez zen salbuespenak emateko legegileak zuen asmoa, "helburua zelako arrazoi teknikoengatik haien burua babestu ezin zuten abeltzainei kalte-ordainak bideratzea".

OTSOAREN EGOERAZ HITZALDIA

Joan den astean, otsoaren egoeraz hitzaldia eskaini du Andrés Illanak, Ekologistak Martxan-eko eta Euskadiko Otso Taldeko kideak, Bilbon. Europar Batasunak otsoaren babesa murrizteko pausoa eman izanak "ingurumen-politikekiko konfiantza ahultzen" duela adierazi du hitzaldia antolatzen duen Ekologistak Martxan taldeak. Gaineratu du "aurrekari arriskutsua" dela, Espainiako Estatuko eta autonomia erkidegoetako araudietan "atzeratze egiteko atea irekitzen duelako". Nahiz eta, estatuaren kasuan, "erabaki horrek ez duen berehalako aldaketarik eragiten", otsoa espezie babestu gisa onartua dagoelako, eta Babes Bereziko Erregimeneko Espezieen Zerrendan 2021etik.

Aldiz, gogorarazi du Eusko Jaurlaritzak otsoa zerrenda horretatik kanpo uzteko eskatu duela. "Eskaera hori Amaia Barredo sailburuak sustatu du, eta ekosistementzat funtsezkoa den espezie bat babesteko atzerapausoa da", salatu du Ekologistan Martxan taldeak. "Gainera, agerian uzten ditu biodibertsitatearen arloan estatuak eta autonomia-erkidegoek hartutako konpromisoen arteko inkoherentzia politikoak eta kontraesanak. Eusko Jaurlaritzaren eskaera bereziki kontraesankorra da, gaur egun Otsoaren Kudeaketa Plan bat lantzen ari baita, zeinak helburutzat duen espeziearen kontserbazio-egoera ona lortzea".

ERRONKARIN HARTZARI BEGIRA

Nafarroako Landa Garapen eta Ingurumen kontseilari José Mari Aierdi Erronkarin izan da astelehenean, inguruko abeltzainekin eta Ibarreko Batzarrekin aztertze hartzak abeltzaintza estentsiboarekin duen harremana, besteak beste. Haien eskaerak babesteko konpromisoa azaldu du kontseilariak, zehazki abeltzaintza estentsiboa aipatuta. "Ezin dugu esan hartzaren presentziaren eta jardueraren tradizionaltasunaren arteko koexistentzia baketsua gertatzen denik", esan du Aierdik. ●

ESKI ESTAZIOETAKO FESTIBALETAN KUTSADURAK GOIA JOTZEN DU



Elur faltak eski estazio ugari kinka txarrean jarri ditu, klima larrialdiaren ondorioz. Baina paisaiari eta naturari ahalik eta etekin ekonomiko handiena ateratzeko batzuen logikak hor jarraitzen du, eta goi mendietan musika fes-

tibal erraldoi eta garestiak antolatzea da azken urteetako tendentzia. Alpe d`Huezen egiten den Tomorrowland Winter jaialdiak marka guztiak hautsiko ditu: 22.000 lagun 3.300 metrotara, zentzugabekeriari gorazarre egiteko.

 URKO APAOLAZA AVILA

Alpe D'Huezeko eski estazioan
kontzertu masiboa.

TOMORROWLAND WINTER



A benduaren 12an, Grenoblen, Isèreko prefekturaren egoitza den XIX. mendeko hotel ederraren atarian, 30 aktibista inguru elkartu ziren gauetz, argiak, danborrak eta pankartak eskuan, Catherine Séguin prefetari tamaina handiko gutun bat helarazi nahian. Ez zuten lortu, baina trukean gutun txikiago bat utzi zioten postontzian, bilera bat eskatzeko. “Prefektura aurrean elkarretaratze bat egitetik, batukada bat egitera edo tekno-baffletera, pauso bat baino ez dago!”, hala zioten Mastodonen zabaldutako mezuan.

Stop Tomorrowland Alpe d’Huez kolektiboko kideak ziren, eta ez da lehen aldia halako protesta bat egiten dutena. Tourraren helmuga mitiko izateagatik edo eski estazio garrantzitsu bat edukitzeagatik ezaguna dugun Alpeetako herri horretan, Tomorrowland Winter musika festibala egingo da 2025eko martxoaren 15etik 22ra, eta horrek eragingo dituen kalteak salatu nahi dituzte.

Tomorrowland jaialdia Belgikan egiten da eta mota horretako munduko ekitaldi handiena bihurtu da, 400.000 entzule biltzera iristen baita uda sasoiaren. Duela bost urtetik –2020ko pandemia urtean ez zen egin–, baina, neguko anaia bikia sortu zaio Alpe d’Huezen, eta datorren urtean mundu osotik joandako 22.000 eskiatzailer aberats elkartzea espero dute, DJ famosenen aurrean gailur elurtuen artean dantza egin dezaten, txanpan gorriarekin topa egiten duten bitartean.

Zentzugabeko neurrigabekeria horrek “karbono aztarna eskandalagarria” sor-

Tomorrow Winterren kontrakoek diote Alpe d’Huezek ez duela behar jaialdiaren “super etekinik”, eta lortzen dena dela tokia lotzea halako ekitaldi garestiekin, Frantziako Tourrarekin beharrean

tuko du, Extinction Rebellion mugimendua egindako kalkulu baten arabera: soilik jaialdira joateko erabiliko diren hegaldiek –parte hartzaileen %60 beste herrialde batekoa da– 6.000 tona CO2 isuriko dituzte, eta horrez gain, argi eta soinu kutsadura izugarria eragingo du. “Mendia Disneyland bihurtuko dute”, dio mugimendu horrek.

Hori guztia irakurri dugu *Reporterre*-n Jeanne Cassardek argitaraturiko *22.000 personnes en pleine montagne: le festival Tomorrowland Winter est-il légal?* (22.000 pertsona mendiaren erdian: Tomorrowland Winter legala al da?) artikuluan. Egileak azaltzen duenez, Stop Tomorrowland Alpe d’Huez kolektiboko kideek nahi dutena da prefekturak festibala geldiaraztea. Haien esanetan, 2030 urtera arte jaialdia bertan ospatzeko Alpe d’Huezeko turismo erakundearekin sinaturiko hitzarmenak, ez du kontrata-

zio publikoaren legea betetzen, besteak beste, ingurumena babesteko klausulak kanpoan utzi dituztelako.

Jaialdirako hamar eszenatoki handi muntatzen dituzte urtero, horietako batek –estalia eta klimatizatua– 10.000 lagunentzako gaitasuna dauka, eta badago beste eszenatoki bat Pic Blanc mendiaren gailurrean jartzen dena, 3.300 metro-tara. Instalazio erraldoi horiek guztiak Écrins parke nazionaletik kilometro erdira baino ez daude. Hain justu, kutsadura akustikoak Écrinseko faunari eragin diezaiokeen kaltea da ekologistek gehien kezkatzen dien gaitako bat. Adibidez, lagopus deituriko hegaztia bertan bizi da azken glaziazioetik, eta mehatxaturik dago, ez baitauka nola kamuflaturik elurrik ez dagoenean.

Stop Tomorrowland kolektibokoen aburuz justizia klimatiko eta sozial kontua ere bada jaialdia geldiaraztea. *Le Monde*-k emandako datuen arabera, jaialdian parte hartzeko pakete osoak 7.000 euroko kostua izan dezake batez beste: “Herritarren zati txiki batek baino ezin du halakorik ordaindu”, diote beraien webgunean, aberatsenek alegia.

Jaialdiak tokiko ekonomiari ekarriko dizkion ustezko onurei buruz, berriz, Extinction Rebellionek dio Alpe d’Huez bezalako estazio ezagun eta esanguratsu batek ez dituela behar horrelako “super etekinak” –hala deskribatu ditu zenbait hedabidek irabazi horiek– eta lortzen ari dena dela estazioaren irudia lotzea Tomorrowland Winter bezalako festival garesti batekin, Frantziako Tourrarekin



PROTESTAK Mendia “dezibeliodun Disneyland” bat bihurtuko dutela salatzen, protestak egiten ari dira aspaldian hainbat herritar eta talde ekologista Alpe d’Huezek –ezkerrean abenduaren 12koa–. Beren esanetan, Tomorrowland Winter jaialdia geldiaraztea justizia klimatiko eta justizia sozial kontua ere bada.

baino. Horregatik aldarrikatu dute bideraezina dela herri betetzea "maletan CO2 tona ugari dakartzaten nazioarteko bezeroz".

GALDUTAKO NEGUA, IRABAZITAKO DIRUA

2024a amaituko dugu errekor triste batekin: lehen aldiz 1,5°C-ko langa gaintuko du tenperaturaren igoerak. Klima aldaketaren eragina are gehiago ari dira nabaritzen Pirinioak, Alpeak eta Europako antzeko mendikateak, eta Alpe d'Huez ez da salbuespena: bere magalean zegoen Sarenneko glaziarrari agur hileta egin diote zientzialariek aurten, duela mende bat zuen 124 hektareako azalera ezerezean geratu delako berotze globalaren ondorioz.

Neguak batez beste zortzi egun galdu ditu urtean azken hamarkadan Ipar Globaleko herrialdeetan, bereziki Europan. Hala dio Climate Crisis GKEak egindako *Lost Winter* (Galdutako negua) azken txostenak. Eta hori, jakina, eski estazioen martxan ere suma daiteke, elur faltarekin.

Adibide paradigmaticoena elurra egiteko kanoien erabilera da. Katalunian, esaterako, *La Directa-k Salvar l'esquí a canonades* (Eskia salbatzea kanoikadaka) erreportajeaz azaldu duenez, Grandvalira, Baqueira Beret eta beste estazio handi askotan ehunka kanoi erabiltzen dituzte elur faltua sortzeko, eta eski pisten %60tik gora modu jasangaitz horretan estaltzen dute. Frantziako Alpeetan, berriz, Courcheveleko estazioan erreka bat sikatu dute bertako ura elur artifiziala egiteko erabili dutelako.

Elur egunen gutxitzearekin, galera ekonomikoak dituztela argudio hartuta, beste negozio-lerro batzuk zabaltzen dituzte eski estazioetan dirutza inbertitu dutenek. Horietako bat da musika festibalak an-



LA PINILLA MOUNTAIN RESORT

LA PINILLA Segoviako eski estazioa luxuzko *mountain resort* bezala berregokitu dute, eta kontzertu handiak eskaintzen dituzte "naturaren erdian". Horrek kutsadura itzela sortzen duela salatzen dute ekologistek.

Elur egunen gutxitzearekin, galera ekonomikoak dituztela argudio hartuta, beste negozio-lerro batzuk zabaltzen dituzte eski estazioetan dirutza inbertitu dutenek. Horietako bat da musika festibalak antolatzea "naturaren erdian"

tolatzea "naturaren erdian": Andorrako Grandvaliran Hibernation Festival, Frantziako Chamonixen Unilimited Festival, Alpe d'Huez-en Tomorrowland Winter...

Eta eskiatzeko ia bideraezin bihurtu diren Europa hegoaldeko estazioak ere hasi dira *mountain resort* modura birmoldatzen, halako ekitaldiak eskaintzeko. Ekologistak Martxanen *El Ecologista* aldizkarian *La Pinilla, todo por la pasta, o cómo destruir la sierra* (La Pinilla, dena diruagatik, edo nola izorrratu mendizerrak) artikuluan laburbildu dute Madril-dik, autoz, ordu eta erdira baino ez da goen Segoviako estazio horren kasua.

Enpresari talde batek, "abenturazko" jardueraz gain -tartean *quad* eta motor lasterketak- kontzertuak antolatu ditu, azkenekoa irailean, *Zamna* izeneko musika elektronikoa jaialdi eksklusiboa. Talde ekologistak ohartarazi du altueran egindako kontzertuek kutsadura akustiko eta luminiko handia sortzen dutela, bereziki. Baina arazoa da, batzuek dezibeliotan baino ez dutela neurtzen euren asebetetze maila. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com





ZAINZA LANAK EZ DIRA JARDUERA ZEHATZ BAT; PRODUKZIO-ERLAZIO PATRIARKALEK EKOIZTEN DITUZTE



Tesia amaituta, pozik dago Lore Lujanbio. Militantziarako denbora gehiago du, besteak beste. Mugimendu transfeministaren erronkez galdetuta, hauek identifikatzen ditu: neoliberalismoak mugimenduaz egin duen apropiazioari heltzea, faxismoaren eta erreakzio heteropatriarkalen gorakadari aurre egitea, eta askotariko zapalkuntzen arteko erlazioak artikulatzea, pribilegioei ere erreparatuz.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Zaintzaren dispositibo patriarkala eta emakume zaintzaileak ekoizteko mekanismoak aztertu dituzu tesian.

Etxeko eta zaintza lanen arloko borroka areagotzearekin batera, Martxoak 8ko greben bueltan, geroz eta gehiago hitz egiten genuen zaintza lanez, eta kontzeptua birpentsatzeko beharra ikusi nuen. Antzeman nuelako, bate-tik, ez daukagula horren argi zertaz ari garen zaintza lanez ari garenean, eta bestetik hipertrofia moduko bat gertatu delako, non ia dena den zaintza lana. Maria Luz Estebanek diskurtso feministaren sentimentalizazioarekin lotzen du hipertrofia hori, eta kezkatuta nengoen zaintza lanen esparruan indarra hartu

duen diskurtso esentzialista eta biologizistekin.

Bi marko teoriko baliatu dituzu.

Batetik, feminismo materialista, eta hor bereziki [Christine] Delphy, [Colette] Guillaumin, [Monique] Wittig edo Jule Goikoetxearen lana, eta, bestetik, filosofia post-estrukturalistan kokatzen den Michel Foucaulten ekarpena, bereziki bioboterearen nozioa. Esentzializazioen aurka egiteko marko teoriko oso indartsuak dira, hain zuzen ere, gorputzen ekoizpena aztertzen dutelako, ekoizpen materiala, mekanismo egituratuen bitartez eta produkzio-erlazio egituratuen bitartez sortzen dena.

Wittigek zioen emakumeek klase sozial bat osatzen dutela.

Emakumea klase sozial bezala definitzeak berekin dakar azalpen biologizista guztiak alde batera uztea, eta ez pentsatzea emakumeak existitzen garenik subalternizazioa baino lehenago edo subalternizaziotik kanpo, baizik eta subalternizazio horrek egiten gaituela emakume. Bestalde, etxeko eta zaintza lanen kontzeptuaren definizioari begiratuta, feminismo materialistatik azpimarratzen duguna da etxeko eta zaintza lanak ez direla zeregin edo eduki zehatz bat. Edozein zeregin, produkzio-erlazio patriarkal eta familiarretan egiten bada, etxeko eta zaintza lana deitzen diogu;



Lore Lujanbio Etxeberria

HERNANI, 1988



Ikerlaria eta militante transfeminista. 16 urterekin hasi zen Herne taldean militatzen, eta Medeak-en egin zuen ibilbidea gero. Tesia amaitu berritan, bigarren hezkuntzako irakasle ari da orain. Unibertsitatean aritzeko interesa izan arren, salatzea iruditzen zaio euskal unibertsitate publikoan kontratu finkoa lortu arte jasan behar den prekarizazioa.

bestela, ez. Horren adibide argia da sukaldaritzarena. Emakumeek dohainik edota etxeko langileek lan baldintza prekarioetan egiten duten zeregin bera, janaria prestatzea, chef pribatu batek etxe batean egiten duenean ez diogu etxeko eta zaintza lana deitzen. Nahiz eta janaria egiteak eguneroko eta oinarriko behar bat asetzea dakarren, produkzio-erlazio patriarkal eta kolonialistetatik kanpo egiten denez, ez dugu zaintza lanaren nozioan sartzen.

Tesiaren klabeetako bat da hori.

Zereginen ezaugarriek edo edukiek ez dute inoiz azaltzen produkzio-erlazio patriarkala, hau da, zereginaren ezaugarriek ez dute azaltzen zergatik ez diren ordaintzen eta ez diren kontabilizatzen (neurtzen eta banatzen). Emakumeek egiten ditugulako dira ez-ordainduak, eta lan ez-ordaindua egiteak egiten gaitu emakume. Pentsamendu heteropatriarkalaren ondorioz iruditzen zaigu etxeko eta zaintza lanek badaukatela ezaugarriren bat –afektibitatea, familiar egiten direla, oinarrikoak direla, etab.–, zeinaren ondorioz lotura zuzen bat daukaten ez ordainduak izatearekin eta ez kontabilizatuak izatearekin. Mar-ko honen bitartez buelta ematen diogu ideia horri, eta, bestetik, patriarkatuaren izaera material eta ekonomikoa ikusten dugu, non badauden produkzio-erlazioak eta horien helburua den, noski, emakumeak sortzea, emakumeak menderatzea eta, hortaz, emakumeen lanaz baliatzea.

XVIII. mendean kokatzen duzu zaintza-dispositibo patriarkalen sorrera.

Foucaulten lana erabiltzea oso baliagarria izan zait azertu ahal izateko Europako modernitatean gertatzen den emakume zaintzaileen ekoizpena, eta horrela nabarmendu ahal izateko etxeko eta zaintza lanaren izaera sakonki historikoa. Zaintza lanak ez dira entitate naturalak, ez dira existitu testuinguru guztietan, ez dira beren horretan botere-mekanismoetatik kanpo dauden praktikak, diskurtso patriarkal horietan naturalizatzen denean ulertzen den modura.

Alegia, janaria prestatu dela gizakia gizaki denetik, baina ez beti modu berean.

Hori da. Horrekin lotuta, zaintza lanak askotan definitzen ditugu eguneroko

beharrak asetzeko praktika bezala, eta elkarrenganako mendeotasuna kudeatzeko modu bezala, eta uste dut potentzialtasun handiak dituela kontzeptu horrek nabarmentzeko elkarren mendeotasuna, eta baita ere ikusarazteko ikusezin egin diren zeregin guztiak. Baina horrela definitzen badugu, kontua da bizitza-forma guztiek kudeatzen dituztela moduren batean eguneroko beharrak eta elkarrenganako mendeotasuna, bakterioek ere, landareek ere, eta guk produkzio-erlazio eta mekanismo zehatzetara begiratu nahi badugu, naturalizazioa oso-oso indartsua den testuinguru batean gainera, izaera ekoiztu eta historiko hori azpimarratzen duten kontzeptuak behar ditugu. Eta Foucaulten biobotere eta botere-dispositibo nozioek ahalbidetzen digute ekoizpen historikoa sakontasunez aztertzea.

Zer aldatu zen Europako Modernitatean, zaintza-lanen harira?

Familia, amatasuna eta emakumeen lanak maitasun erromantikoarekin lotu ziren, adibidez. Hori izan zen Aro Berrian gertatutako transformazioetako bat, beste hainbat artean, gaur egun guztiz gorpuztua eta naturalizatu dautzaguna. Prozesu horiekin sortu zen etxeko eta zaintza lana bereizitako esparru bezala, hau da, botere-dispositibo patriarkal bezala. Horrekin batera emakume zaintzaileak eraikitzea ezinbesteko egin zen, hau da, maite dituztenengatik sakrifikatu eta lan egiten duten subjektuak sortzea eta naturalizatzea. Bioboterearen eta feminismo materialistaren marko filosofiko eta politikoen ahalbidetzen dute nabarmentzea ekoizpen biopolitikoak gorpuztu hartzen duela, eta emozioak zein desirak transformatzen eta sortzen dituela, eta hori ezin dela aldatu indibidualki, nahi ahala. Oso garrantzitsua da boterearen mikrofisika hori antzematea. Izan ere, subjektuaren nozio liberal-arrazionalaren bitartez barnerarazi digute ideia hori non emozio batzuk ditugunean, ezin ditugunak indibidualki eta nahi ahala transformatu eta ez ditugunak kontrolatzen –zaintza lanarekin lotuta, amatasunarekin eta familiarekin lotuta–, naturalizat hartzen ditugun. Adibidez, amek hurrekiko duten kezka eta maitasuna. Naturala esentziatzen hartzen da –ezin dugu kontrolatu–, eta ekoiztia dena, berriz, kontraktat, eta horren



arabera, zuk kontzientziazio-prozesu baten bitartez ahal duzu transformatu zapalkuntzak sortu duen guztia. Eta zailentzari gabe, ez da horrela. Dikotomia hori transformatu behar dugu eta diskurtso biologizista horiek agerian jarri.

Badugu eragiteko ahalmena, baina...

Bai, badago eragiteko aukera, guztiz ados, eta geroz eta modu kolektiboagoan egin, indar gehiago sortzen da eraldatzeko. Gakoa aldaketa kolektibo eta egiturazkoak sortzea baita. Edozein kasutan ez da nahi ahala, erabaki baten bitartez, aldatuko den zerbait, baizik eta borrokarren eta haragitze erlazionalen bitartez aldatzen dena.

Botere-erlazio patriarkalak eta botere-erlazio kapitalistak bereizi dituzu tesian.

Kapitalismoaren eta industrializazioaren garapenarekin, XVIII. mendean, produkzio-erlazio kapitalistak sortzen eta zabaltzen dira. Lan ordaindua dute ezauzgarri. Produkzio-bideen jabe ez den edo bere lan-indarra saldu gabe bizitzetik ez duen horrek produkzio-erlazio kapitalistetan biziko du bere esplotazioa. Hainbat mekanismoren bitartez produkzio-erlazio kapitalistak maskulinizatuak izango dira. Bestalde, produkzio-erlazio kapitalistak eta produkzio-erlazio patriarkalak bereiziko dira. Erlazionatuta egon arren, gizon zuri guztiak geratuko

dira produkzio-erlazio kapitalistetan, apropiazioan oinarritutako produkzio-erlazioetatik kanpo, eta aldiz, gorputz arrazializatuak eta emakumeak produkzio-erlazio horietan kokatuak izango dira.

Zertan bereizten dira bi produkzio-erlazioak?

Produkzio-erlazio kapitalistak lan ordainduarekin (balioaren produkzioarekin) eta neurriarekin lotuko dira, kontabilizatzearekin, ordutegiak zehaztearekin eta baita ere zereginak moduren batean espezializatzearekin. Emakumeei, aldiz, ezarriko zaie bitzta kudeatzeko eta banako produktiboak sortzeko eginkizuna, eta hori egingo da produkzio-erlazio patriarkalen mende. Orduan, emakumeei ezarriko zaie lan ez-ordaindua, zeina batez ere familietan antolatuko den, eta apropiazio-erlazioa deitzen zaiona izango du ezauzgarri: gorputza osotasunean hartu eta desjabetuko zaie. Emakumeei eskatuko zaie gizonen beharretara eta besteen beharretara egotea etengabe, ordutegirik gabe, kontabilizaziorik gabe, ordainik gabe.

Esan dezakegu, ulertzeko, gizonak bizirauteko beraien lan-indarra saldu beharko dutela eta emakumeek gor-

“
Ezinbestekoa da euskal zaintza sistema publiko eta feminista bat sortzea, eta gizonak zaintzera eta lan ez-ordaindua egitera behartzeko mekanismoak sortzea”

putza osotasunean oparitu beharko dutela. Gorputza osotasunean desjabetzeak lan-indarra desjabetzea ere inplikatzeko du, noski. Badago, baita ere, gizon bakoitzak jasoko duen pribilegioa, nahiz eta pobrea izan, nahiz eta langile klasekoa izan: bere manera egongo den emakume bat, zerbitzari bat edukiko du.

XX eta XXI. mendeetan erantzun egin zaie, feminismoetatik, dispositibo patriarkalei. Nola birkonfiguratu dira?

XX. mende amaierako borroka feministen lorpenak askotarikoak izan dira baina ikusten dugu indarrean jarraitzen dutela bai produkzio-erlazio patriarkalek bai emakume zaintzaileen ekoizpen-mekanismoek. Emakumeek jarraitzen dute lan ez-ordainduaren gehiengoa egin. Bestetik, lan ordainduaren presentzia areagotu egin da, baina sektore feminizatuak dira prekarizatuak, eta etxeke eta zaintza lan ordaindua bereziki prekarizatuak eta subalternizatuak da. Ez da kasualitatea. Jardun bat geroz eta gehiago identifikatu emakumeekin eta etxeke eta zaintza lan ez-ordainduarekin, geroz eta subalternizatuagoa izango



da, nahiz eta ordaindua izan. Gainera, pribatizazio neoliberalak emakumeen lan ez-ordaindua handitzen dute, eta lan baldintzak okertzen. Eta zer esanik ez azken hamarkadetan gertatu den etxeko eta zaintza lan ordainduaren arrazializazioarekin, subalternizazioa eta prekarizazioa oso larria baita. Besteak beste, Atzerritartasun Legeak ahalbidetzen du egoera hori. Transformazio horiek etxeko eta zaintza lan dispositiboaren birkonfigurazio bezala ulertu behar ditugu.

Amatasunean ere identifikatu duzu berrantolaketarik.

Gaur egun, ama edo ez ama izateko erabakia hartu dezakegu, baina indarrean jarraitzen dute amatasun desira hori sortzeko askotariko mekanismo patriarkalek, diskurtsoek eta esanahiek. Ama izan edo ez izan erabakitze aukera hori bilakatu da ardura indibidualaren erretorika indartzeko eta despolitizatzeko modu bat: zuk zeuk erabaki duzunez,

“
**Esan dezakegu,
ulertzeko, gizonen
bizirauteko beraien lan-
indarra saldu beharko
dutela eta emakumeek
gorputza osotasunean
oparitu beharko
dutela”**

orain ardura osoa duzu amatasun normatibo hori aurrera eramateko. Ikuspegi horrek ez du erakusten antolaketa patriarkal baten bitartez garatu behar duzula amatasuna. Noski behar dugula erabakitze gaitasuna, baina erabakitze gaitasun hori egitura publikorik gabe eta produktio-erlazio patriarkalak irauli gabe garatzen bada, bilakatzen da erabakitze-nozio neoliberala. Beste tranpa bat. Gainera, kontuan izan behar dugu azken hamarkadetan amatasuna geroz eta intentsiboagoa eta zurrunagoa bilakatu dela. Hau da, haur bakoitzari eskaini beharreko denbora eta lana handitu egin direla. Horren aurrean, erabaki dezakegu, batzuk erabakitzen dugun bezala, ama ez izatea, eta ulertzea ama ez izate hori posizio politiko eta erresistente bezala gure testuinguruan.

Urtebete pasa da 2023ko azaroaren 30eko grebatik.

Azken urteetan mugimendu feministatik lortu dugu gaiak zentralitate bat

hartzea eta etxeko eta zaintza lana politizatzea. Askotariko erronken artean, nabarmendu nahiko nuke diskurtso esentzialista eta biologizista horien aurka egiteko estrategiak eta kontzeptuak sortzen eta zabaltzen jarraitzeko erronka. Horretarako zaintza lanen definizio materialista gaurkotua fintzea eta zabaltzea oso garrantzitsua da. Bestetik, uste dut ezinbestekoa dela euskal zaintza sistema publiko eta feminista bat sortzea, eta gizonak zaintzera eta lan ez-ordaindua egitera behartzeko mekanismoak sortzea. Eta horrekin lotuta, erronka edo eginkizun ezinbesteko bat da lan ordainduan ari diren emakumeen eta bereziki emakume migratzaile eta arrazializatuaren egoerari heltzea: Atzerritartasun Legea bertan behera uztea, etxeko lanaren erregimen bereziarekin amaitzea; oro har, antolaketa arrazista eta kolonialista hori iraultzea eta, noski, alternatiba sortzea. Azkenik, greba erreminta garrantzitsu bat da etxeko eta zaintza-lanen esparruan borroka egiteko, eta birpentsatu egin dugu, eta horrekin beste borroka-estrategiak ere pentsatzen ari gara, emakume guztiak ezin baitute grebarik egin. Hortaz, askotariko lanabes eta estrategiak behar ditugu. ●



Siriako Arabiar Errepublikaren amaiera



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA

Siriako Arabiar Errepublikaren amaierak harridura handia sortu du, gertatu den moduagatik: azkar eta ia erresistentziarik gabe. Halere, ez da hain arraroa herrialdea suntsituta, pobretuta eta zatitua zegoela kontutan hartzen badugu. Aspalditik siriar gehienek ardura ez zen nor dagoen agintean, baizik eta bizirautea.

2018an gerra fronteak gutxi-asko egonkortu eta lehentasuna arlo militarretik berreraikuntzara pasatu zen. Baina Siriako Arabiar Errepublikaren kontrolpetik kanpo zeuden nekazaritzarako lurralde emankorrenak eta, batez ere, petrolio eta gasa; bi horiek Amerikako Estatu Batuetako armadaren esku egon dira orain arte. Horri erantsi behar zaizkio Mendebaldeko herrialdeetatik Siria-
ren kontra jarritako zigorrak eta blokeoa, eta Israelen noizbehinkako bonbardaketak. Testuinguru horretan, lehenengo COVID-19 pandemia iritsi zen eta, ondoren, 2023ko lurrikara. Biek, ustelkeriak eta estatuaren eraginkortasun faltak, hondamendi ekonomikoa sakondu zuten.

Aspalditik Siriako borroka ardatz nagusia da nazionalismo-akonfesional eta islamismo sunitaren artekoa. Alde batean zein bestean mugimendu politikoa eta posizionamendu ideologikoa desberdinak daude beraien artean gatazkak dituztenak eta, oro har, herrialdean inpaktu politikoa duen aniztasun etniko handia dago. Halere, estatuak momentu zehatz batzuetan gutxiengoek eta sektore akonfesionalak muturreko islamismoari

Kaltetu nagusia Palestina izango da, Siriako Arabiar Errepublika aliatu nagusia zelako eta Iranetik Palestinara lurrez konektatuta zegoen erresistentziaren ardatza hautsi delako

dioten beldurra kapitalizatzen jakin izan du. Horregatik, 2011, 2012 eta 2013an, hainbat sektore –batzuk gobernuaren kontra protestetan aritutakoak–, Siriako Arabiar Errepublikaren subiranotasunaren eta multikonfesionalismoaren alde mobilizatu ziren gerran.

Hamar urte geroago, ordea, inork gutxi egin du gobernuaren alde. Izan ere, erregimen bat nekez legitimatu daiteke populazioaren gehiengo zabala miserian bizi bada. Horrelako egoeretan Siria askotarikoa defendatzen dutenak errazago gogoratzen dituzte erregimenaren autoritarismoa edota ustelkeria, multikonfesionalismoa eta subiranotasuna baino. Horrek ez du automatikoki esan nahi siriar gehienek muturreko islamismoa babesten dutenik; ez, besterik gabe, gehiengoak erabaki du ikustea zer egingo

duen Siriako autoritate berriak. Honen arrakasta edo porrota herritarrek arlo ekonomikoan neurtuko dute seguruenik eta ez hainbeste emakumeen eta gutxiengoen eskubideen galaran.

Bitartean, subiranotasunaren eta geopolitikaren ikuspegitik siriar hondamendiak jarraitzen du. Turkiak garaipen garrantzitsua lortu du, berak babesturiko islamistak baitira gobernu berriaren zutabe nagusia. Ankarak zeharka kontrolatzen duen Siria gutxienez Alepora arte zabalduko da.

Washington pozik dago ikusteaz bere itotze ekonomiko estrategia arrakastatsua izan dela eta Iran eta Errusia kalte-tutu dituela. Halere, Turkiak buruhausteak sor diezazkioke. Gobernu berriak ekonomian zeozer egin behar badu, petrolio eta gasa behar ditu, horregatik, eta Ankararen presioagatik, Washingtonen aliatu kurduak etorkizun zaila dute.

Beste irabazleetako bat Israel da. Azkeneko asteetan Sirian ehunka bonbardaketa egin ditu eta kontrolatzen dituen siriar lurraldeen zabalera handitzen ari da okupazio berriekin. Jakina da Tel Avivek muturreko islamismoa gutxienez aliatu taktikoa izan duela eskualdean eta, oraingoz, siriar autoritate berriak adierazi du Israelekin harreman onak mantendu nahi dituela. Horren kaltetu nagusia Palestina izango da, Siriako Arabiar Errepublika bere aliatu nagusia zelako eta Iranetik Palestinara lurrez konektatuta zegoen erresistentziaren ardatza hautsi delako. ●

DSBEren 'humilladeroa'



SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR

Betidanik begitandu zait esanguratsua goa han-hemenka topa daitezkeen guruztokiei gaztelaraz esaten zaien modua: *humilladero*. Ez al da guruztoki edo santutxo izen nahiko *light*, zuri edo haragoko konnotaziorik gabekoa? Azken batez, bertatik pasatzen zen oro umiliatu behar zen. Gauza jakina da abrahamdar erlijioetako jainkoarentzat, bere tankerara osatu arren, gainontzeko izakiok ez gara ezer, balio eta gaitasunen orde, hoben eta bekatuak baino ez dauzkagula.

Urte mordoia pasatu da diru-sarreak bermatzeko errenta (DSBE) mar txan jarri zenetik. Norbera ere urteetan aurrera doanez, gomuta dezaket Gasteizko gobernuak paparra harrotzen zuen sasoi, *Espanian baino hobeto* leloa prentsaurrekoetako geletan zintzilik geratzen zelarik.

Baina eskubidea (bizitzeko eskubidea) limosna moduan ulertzen denean, herritarrak erromes bihurtzea bilatu ohi da. Eta laster hasi zen DSBE guruztoki berri bilakatzen. Horixe da DSBEren legeak, bere burokrazia, oztopo eta kontrol guztiarekin, sustatzen duena.

Behin ere ez dira DSBEz arituko, *kontrol* berba aipatu barik. Iruzurrak hitz egiten dute eta, lotsa barik, zaku berean sartzen dituzte hutsegite administratiibo eta burokratikoak, administrazioak berak onartu arren txarto egindako ordainketa gehienak euren akatsagatik direla. Errealitatea da iruzurra ez dela %0,2ra heltzen. Baina kaltea eginda dago. Jende "zaugarria" babestea modako asmo politikoa den sasoi honetan, Jaurlaritzaren jokabideak argi uzten du DSBEren jasotzaileak lapur, susmagarri eta arriskutsuak direla.

Hori azken urteotan areagotzen ari da, jasotzailearen profila aldatzen joan den erritmoan. Hatz markekin identifikatzera behartu zen eta, ozen ez esan arren, aitzakien atzean, "beltz guztiak berdinak dira" topikoak durundi egin zuten. Legearen 2022ko azken moldaketaren ostean, kontrola maila beldurgarrietara zabaldu da. Beldurgarria diot, jendeari beldurra pasarazi diotelako, nahita. Imajinatu etxean zaudela, orain-

dik ondo ezagutzen ez duzun herrialde batean, eta polizia aldra bat barrura sartu dela, kaxoi, apalategi eta armairuetan arakatzeko.


Urteetan iritzi publikoaren aurrean delitugileak fabrikatu ostean, ez al zen sasoi iritzi publiko hori subjektu aktibo bihurtzeko? Orain, auzokideak auzokideen zelatari-salatari!

Ez dut uste umiliazioa baino sentipen suntsigarriagorik dagoenik izaki humanoarentzat. Balio eta gaitasunez erantzi eta hoben eta bekatuz janzten gaitu. Barkazioak kolpe egiten digu buruan. Barkamena gatozen tokitik etortzeagatik, barkamena hilabete amaierara ez heltzeagatik, barkamena gu izateagatik eta beste batzuek izan duten suertea ez edukitzeagatik. Hitz bitan, barkamena existitzeagatik.

Eta neure buruari galdetzen diot halako trataera jasotzen dutenek ea zer nolako jarrera izan behar duten instituzioekiko. Areago, zer nolako jarrera izan behar duten hori onartzen duen jendartearekiko.

Herritarrak umiliatzen dituzten instituzioek ez dute jendarte osasuntsurik nahi. Baina kolektiboak seinalatzea ondo probetxugarria da politikoki, gainera daudela uste duten herritarrek frustrazio guztiak horien kontra jaurti ditzaten, ardura barik zeintzuk diren euren egoeraren benetako erantzuleak.

Munduan arrazakeria (eta aporofobia), nazionalismo zuri zikinena, zabalitzen ari den honetan, gure lurraldea ez dago salbu. Gero eta bustiago blaitzen gaitu. Eta hau ez da teoria. Hau, praktikan, denok ikusten eta entzuten digu kaleetan, familietan, lagunarteetan, berdin solaskideak bere burua ezker-tartzat duen ala ez. ●



Irribarre egin, murtxikatu eta isildu



HIRUKI LARROXA

Askok, Gabonetan, ilusioa baino alferkeria handiagoa sentitzen dugu familia-otordu eta -topaketetan pentsatzean. Baina aurreratzen dizuegu ez dela otordua bera kolektiboki deseroso sentiarazten gaituena, familia tradizionala definitzen duen normatibitatea baizik. Are gehiago, ausartuko ginatke esatera ondorengoa dela deseroso sentiarazten gaituen formula komuna: *Gabonak familian = esleitutako rola betetzea + iruzkin deserosoak onartzea + urte osoan metatzen joan diren gatazkak ezkutetzea + hipokrisia pixka bat.*

Izan ere, *familia* hitza latinezko *famulus* hitzetik dator, *morroi* esan nahi duena. Eta noski, etimologia ekartzen badizuegu, data hauetan (eta urtean zehar) familian errepikatzen diren dinamikak aztertzekeo lagungarria delako da.

Familia, berez, egituratua dago arau (heteropatriarkal) kolektiboa norberaren beharren gainetik ezartzen duen eta egoera askoren esklabo sentiarazten gaituen instituzio gisa. Hortik, gure lehengusu arrazista eta homofoboarekin afaltzera behartuta sentitzea; urtero gure balioak, nortasuna eta existentzia bera baliogabetzen dituen arren. Hortik ere, ama eta amona askok beren burua zaintzaile eta sukaldari roletan preso sentitzea; atsedean hartzeko edo gozatzeko duten eskubidea (beste askoren artean) urratzen diren arren.

Areago, Gabonek familiaren *performance* gisa funtzionatzen dute, eta familia-topaketetan, ezkutuko (eta ez hain ezkutuko) gatazkak mahai gainean jartzeko edozein ahalegin mehatxutzat hartzen da. Baina, zergatik ezin diogu aurre egin iruzkin klasistak egiten dituen izebari edo "kanpokoei" buruz hitz egiten duen aitonari? Agindua argia delako: irribarre egin, murtxikatu eta isildu.

Bai, dinamika horiek oso nekagarriak dira; batzuetan oso bortitzak ere bai. Pertsona disidente asko beren burua kamuflatzera, beren errealitateak alde batera uztera eta beren izanaren kontrako iruzkinak jasatera behartuta sentitzen direlako. Eta justuki, hemen sartzen da jokoan aukeratutako familiaren gaia. Horretan, ohiko familia-arauetatik kanpo sentitzen garen pertsona askok lagunartean eta bestelako lotura afektiboetan aurkitzen dugulako babeslekua. Aukeratutako familiak gogorarazten baitigu ez gaudela behartuta kalte egiten diguten loturak jasatera.

Horregatik, premiazkoa da "familia" instituzio gisa birpentsatzea. Edo, zergatik ez, familia bera ezagutzen dugun bezala abolitzeko bide-orri bat diseinatzen hastea. Bitartean, gutako askok ihesbide propioak diseinatu ditugu, Urtezahar gauean gure hautatutako familien akelarreetara ihes eginez. ●

Pereza

EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA
IDAZLEA

Ez dakit zuek ere pertzepzio bera ote duzuen –aitor dut: modu zientifikoa hasi naiz idazten hemen–. *Pereza* hitzaren *hedatze naturala* zari naiz. Gero eta gehiago aditzen baitut Hego Euskal Herriko bazterretan: euskaraz, espainolez eta, jakina, euskañolez. Zilegi bekit galdetzea, ez baitakit nola den bertze inguru batzuetan: perezaren harroaldia antzeman dute Ipar Euskal Herrian ere? Kultura globalizatuan? Sare sozialetan?

Jarrai dezadan –modu zientifikoan– zahartzen ari zaizkidan begi-belarriekin. Izan ere, gero eta ozenago adierazten den

pereza –ez nagi, ez nagikeria–, gazteagoen artean sumatu izan dut gehien. Nolanahi ere den, adin batetik goiti korritzen ere badaki boladako terminoak: pereza, kurioski, ez bide da nagia akolito berriak lortzeko ahaleginetan. Agian, ARGIAko irakurle maite hori, zu ere hasia zara pereza garaikidean pausoak ematen...

Baina, nondik etorri da hitza noiznahi erabiltzeko joera? Zer dela eta du aldealdeko haizea gurean?

2025ean sartzeak pereza ematen duela aditu berri diot bati. Etxepe berean bizi den auzokideari. 16 urte dituen gure semearekin solasean ari zela. ●

Izartxoak*, arriskutsuak patriarkatuarentzat



NEKANE TXAPARTEGI
KAZETARI FEMINISTA

Sistema kolonial kapitalista heteropatriarkala auzitan jartzen eta borrokatzen denean, gupidarik gabe erasotzen du bueltan. Eskura dituen tresna guztiak erabiliz, instituzioak, medioak, justizia, hizkuntza, kultura, indarkeria... boterea berrindartzeko, sendotzeko eta finkatzeko.

Bi astetik behin erailketa matxista bat izaten den Suitzan, aurten 21 feminizidio zenbatu ditugun herrialdean, eskuinak "woke erokeria" deritzotzarekin bukatzeko beharra sentitu zuen. Elizan sistematikoki izandako sexu erasoak zeharka aipatzen hasi direnean, Basel eta Züricheko unibertsitateetako ikasleek irakasleek eginiko bortxaketa eta sexu abusuak salatu dituztenean, trans, ez bitar eta queerren aurkako erasoak zein eraso arrazistak ugaritzen ari diren honetan, izartxo batean ikusi du arriskua patriarkatuak. Eskuina, balio horien zaindaria, gerra kulturala egiten saiatu da genero disidentziak adierazten dituen izarra (*) kentzearen aldeko ekimenarekin. Horrela, azaroaren 24an zeinu baten inguruan bozkatu zen Zürichen, eta mundu mailako primizia bihurtu zen.

Ekimenaren bultzatzaileek, SVP

Zeinuak garrantzitsuak dira, mundua horien bidez irakurtzen dugulako. Genero izartxoek ez dute inor erailko, botereak eta pribilegioek bai

eta beraien babesleek, besteak beste, "bermigrazio" ideologia faxista zabalitzen duen txertoen kontrako elkarteak, zioten beraien intentzioa ez zela politikoa, hizkuntzaren arauak mantentzea baizik. Hizkuntza alemanean genero disidentziak txertatzeak hizkuntzaren arauak hausten zituela, alegia. Itsuen eskubideetan ere pentsatu zuen eskuin elitista eta kapazitistak. Lotsarik gabe, egunerokoan diskriminatzen dituzten taldeak instrumentalizatzen saiatuz, genero izartxoak irakurketa zaildu omen ziezaietkeela agudiatu zuten. Errefe-

rendumean eskuinaren ekimena atzera bota zen gehiengo zabalaz, eta seinale garrantzitsua eman zen.

Genero izartxoaren erabilerak ez ditu genero disidenteak babestuko, hori gizar-tearen maila guztietan eman beharrekoa baita. Hizkuntza horren parte bada ere, ezingo die eman beharrezko segurtasun fisikoa, psikologikoa eta ekonomikoa, ez eta existentziaren aitortza juridikoa ere. Halere, zeinuak garrantzitsuak dira, mundua horien bidez irakurtzen dugulako, baita erasoei aurre egiten badakigula adierazteko ere. Genero izartxoek ez dute inor erailko, botereak eta pribilegioek bai.

Bozketa honekin, eskuinak mahaitik garbitu nahi izan ditu genero rolei buruzko eztabaida, indarkeria matxistaren errealitatea eta mugimendu feministaren lorpenak. Egungo botere harremarek bere horretan jarrai dezaten, beren pribilegioez gozatzen jarraitzeko, sistema osoak babestuta. Kapitalismoak eta kolonialismoak debaluatutako gorputzak jomuga. Pribilegioak ez dituzte borondatez emango, borrokaren bidez galdu araziko dizkiegu. Elkarrekin izar-txoak marratzuz! ●



Soziolinguistika aldizkaria

harpidetu edo oparitu > URTEAN 40 euro

- Hiru hilez behin, BAT aldizkaria etxean bertan.
- Hiru hilez behin, BAT aldizkaria PDFn eta EPUB-en jaso.

<https://bat.soziolinguistika.eus> / 943 592 556
bat.aldizkaria@soziolinguistika.eus



BAT 132. ZENBAKIA
HIRIETAKO SOZIOLINGUISTIKAZ

JOSU AMEZAGA ALBIZU ETA NAROA BURRESO PARDO > Hiriguneak eta euskarazko komunikazioa.

JASONE CENOZ, DURK GORTER ETA JOKIN AIESTARAN AIERBE > Euskara Donostiako hizkuntza-paisaian.

LARA ALONSO ETA LUISA MARTIN ROJO > Madril/New York: bi hiriren eraldaketa hizkuntza-paisaiaren bidez. Hezkuntza ekintzarako tresna.

GUREAN atala

ANNE EGAÑA ASENSIO > Gasteizko guraso euskal hiltunen familiako hizkuntza politikak seme-alaben sozializazio eleaniztunerako.

OSKAR ZAPATA SOLANO ETA IÑAKI SAGARDOI LEUZA > "Gero eta aldeko gehiago": prozesu *polifoniko* baten sintesia.

Garbiñe Larrea ren
liburu berria

*Kendu zure bizitzatik
100 toxiko*


Nola egin kosmetiko segurua etxean

Liburua **28€**
+ Bidalketa gastuak
azoka.argia.eus



Ibai Arrietaren argazkiekin





“Tresna sozial izatetik, produktu kultural izatera pasatu dira plaza antzerkiak”

Master Amaierako lan sendoa aurkeztu berri du Peio Berterretzek. Urte luzetan antzerkian ikasia eta aritua, plaza antzerkien jatorriaz eta gaur egun dituzten funtzioez aritu gara harekin, Lekorneko Kabalkadan oinarrituta egin duen ikerketaren aitzakian.



Ortzaizen geneukan jarrira hitzordua Peio Berterretxekin, Nafarroa Beherean, Ipar Euskal Herri barnealdeko literaturaren kabi den Menta liburutegian. Jendez beteta egonagatik –nola ez poztu–, lekua aldatu behar izan dugu. Eseri orduko hasi gara solasaldi sutsuan, gaur egungo Kabalkadez eta Libertimenduez, iritzi eta kritika elkar trukean.

Grabagailua piztearekin bat, gaur egun Iparraldean bizirik dauden plaza antzerkiak aurkezteko eskatu diogu. “Lau forma nagusi badira gaur egun”, erantzun du Berterretxek, eta zerrendatu: Pastoral, Kabalkada, Maskarada eta Libertimendua. Ezagunak Euskal Herrian, bereziki Bidasoatik gora. “Maskarada eta Libertimendua ihauterietako erritu batzuk dira; Kabalkada eta Pastoral, aldiz, udako ikuskizunak”.

Formetan ez dago diferentzia handirik. Esaterako, Kabalkada ihauterietako errituaren kalko da. Antton Lukuk *euskal arte drama* deritze, dantza, antzerkia, bertsolaritza, kantua eta musika agertzen baitira txirikordaturik.

Kabalkada eta Pastoral herri mailakoak dira, gutxi gorabehera herri batek hamar edo hogeit hamar urtean behin egin ohi dituenak. Libertimendua, aldiz, herriko gazteek urtero egiten dute, ihauterietan.

Zera azaldu du Berterretxek: “Libertimenduaren ariketa gehiago izanen da botere-lekuak erakustea, salatzea, trufatzea. Ihauteriko egin beharrak erran nahi du hori. Berpizten gara beste urte baterako, beraz, *tabula rasa*, kaosa ekartzen da, ondotik ordena ekartzeko. Beti sinbolismo horretan gara. Maskaradak ber funtzioa du, beste manera batez itzulia, baina ber gauzak ikusten dira; zibilizatuak basen kontra altxatzen”.

Berterretxek tesian azaltzen duen gisan, gizarte aurre-industrializatutik datoz aipaturiko plaza antzerkiak. Formak asko aldatu dira: XIX. mendeko baserri-eremuak komunitate erdi autarkiko batzuk ziren, bizitzeko beharrianan ekoizpena gertu ziurtatzen zen, etxaldean edo auzoan. “Herri batetik bestera joateko urrun zen, luze”, dio Berterretxek. Eta bizitzeko modu horrek, nola ez, pentsatzeko moduan eragina zuen: “Komunitate horiek biziki garrantzitsuak ziren. Horiek zuten segurtatzen bakoitzaren bizirautea. Adibidez, bellarrak egiteko, auzokideak behar zenituen”. Hau da, auzokideekin harreman sendoak zeuzkaten, eta komunitatea ez zen kidetasun sentimendu lauso bat, bizirauteko baldintza baizik. Lanaren koordinazio kolektiboa zegoen. Are gehiago, honela dio Berterretxek te-


si-lanean: “Gizarte aurre-kapitalistan, komunitatea zen zerumuga geografiko, kognitibo, sozial eta materiala”.

Era berean, bakoitzaren biziraupena bestearen meneko zen gizartean, egungo indibidualismo modernoa osatzen duten jarrerak pentsaezinak ziren. Kontrola edo erregulazioa ere horrela ulertzen dira: “Komunitatearen beharra duzulakotz ez zara hasiko zernahi egiten. Eta hasten zinelarik zernahi egiten, komunitateak bazituen tresnak horren erregulatzeko”. Jarrera indibidualen eragina zeukaten komunitatean, horregatik, komunitateak bazeukan bere zigor sistema, esaterako, bertsoek izan zezaketen funtzio sozial hori: “Justizian bezala, graduatua da, hanka-sartze ttipi bat, erregulazio ttipi bat; akats handia, erregulazio handia”.

XARIBARIAK, JARRERA INDIBIDUALISTAK KONDENATZEKO ANTZERKIAK

Gaur egungo plaza antzerkien aurrekariak justizia herrikoi horren parte ziren, eta xaribariak deitzen zitzairen. Xaribariak ezkontza sistemari zegozkion, kristautasunarekin batera, ezkontza kontzeptua garatu zen garaitik aurrera. Europako landa eremu guztian egiten omen ziren.





Berriz ere, garaiko gizarte formara garamatza Berterretzek: “Ezkontza ez da amodio istorio, garaian bi ekoizpen indar batzen ziren. Bi etxe, bi familia, bi ekoizle. Komunitatearen biziraupena zegoen jokoan, eta gertatzen zen batzuek komunitatearen arauak ez errespetatzea”.

Xaribaria egin egiten zen. Gehienetan, gazte batekin bigarren edo hirugarren aldiz ezkontzen zen adineko alar-gunari egiten zitzaion. Esan bezala, zigor sistema mailakatu zen. Lehenik, gauze egin ohi ziren: gazte eta ezkongabeak joaten dira pertsonaren etxera, astoekin, zintzarriekin edo tutekin, arrabotsa egiten zuten, zirtolariak ere bazituzten. Gazte ezkongabeak ziren xaribariaren egileak, hain zuzen ere, garaiko gizartearen botere ekonomiko eta politikotik oraindik baztertuak zeudenak. Errudunak sosez edo ardoz ordaindu arte ez ziren isiltzen. Ordaintzea ukatzen bazuen, ordea, zigor-fase hurrena Tobera-munstra egitea zen. Hori zen xaribarietan zigor handiena, bortitzena. Egun argiz egin ohi zen, herriko plazan, eta ondoko herriak ere gonbidatuta zeuden. Protagonistek ikusleen artean egon beharra zeukaten, *epaiketan*: “Auzi faltsu bat da, baina egiazko izenak botatzen dira, eta izigarri bortitza da, zenta umiliazio publiko bat baita”.

Geroago, XIX. mendean, beste gai batzuen inguruko xaribarien aztarnak ere bildu ditu Berterretzek tesian. Hala nola, Xabier Itzainak aipatzen duen gisan, Elizaren edota alkatearen aurkakoak. Gehienetan, lanbide apaletako gazte batzuk ziren horien egile.

Baina berehala heldu zen aldaketa, industrializazioarekin batera. Garraio-bide eta hiriak agertzearekin bat, gizarte izugarri aldatu zen. Hau da, lehen herrietan ekoizten zuten haiek behar zuten. Industrializaziotik aitzina egokituko dituzte haien ekoizpenak salmentarako eta merkaturako, Berterretxeren esanetan. Beraz, ez zegoen jada hainbesteko dependentziarik komunitatearekiko, eta ihes egin zitekeen. “Frantses boterea hedatu denez Baionatik ibar zoko guzie-



“Gizarte aurrekapitalistan, komunitatea zen zerumuga geografiko, kognitibo sozial eta materiala”

tara, errazago ateratzen ahal zara eta errazago sartzen; bi zentzuetan da”.

Funtsean, ekoizpen moduaren aldaketak berarekin dakartza aldaketa kulturalak. Apaizak eta alkateak hasi ziren esaten xaribariak basakeria zirela. “Beste moral batek hartzen du lehengoaren lekua”, dio Berterretzek, eta sakontzen du: “Besteen bizi pribatuan sartzea bortitz bezala ikusia da, ez baitago jada lehengo komunitaterik”.

PRAKTIKA KULTURALEN ERALDAKETA

“Garaiko jendarte hori ez dugu kontzebitzen ahal. Praktika kulturalak ez ziren gaur egun bezala norbere buruarentzat, plazerarentzat”, argi dio. Europaz kanpo beste gizarte batzuetan ere ikus daiteke. Praktika kulturalak ekoizpenaren parte ziren, dantza adibidez, lanean eritimoa markatzeko erabiltzen zuten, zomorroen aurka. Juan Antonio Urbeltzek esaten du neolitikoan, gizakia sedentario bihurtu zenean, etsai handia intsektuak bihurtu zirela, eta dantzak zirela horiek uxatzeko bide. Zomorroak konjuratu egiten ziren, dantza momentuan agerraraziz, gero uzta hondatzera ager ez zitezen. Edo alderantziz, dantzen bidez, dei egiten zitzaion zomorroi, euriari...

Gizarte formaren aldaketarekin, praktika kulturalak eraldatzen joan ziren, eta garaiko dantzak, Tobera-munstra eta xaribariak ez ziren ikusgarriak: “Gaur egun, euskal dantza, oholtza gainean ikusten da, ikusgarria bilakatzen da. Denborarekin tresna sozial batetik produktu

kultural bat izatera pasa dira.” Eta horrek edukizko aldaketak ere bada-kartza, Berterretxeren arabera: “Kasu emanen dugu dantzaren kalitateari, zirtzilen jokoaren mailari, zer erraten den... Ahal bezainbat jendek maitatu behar du, beraz, ez da sobera bortitza izan behar jendea biltzeko”.

Momentu horretatik aurrera, bide ugari hartuko dira. “Gertatzen den lehen gauza da dantzak gaina hartzen duela, dantza ontsa da, zeren ez baita nehor mintzo”. Alde batetik, dantza ikuskizunak agertuko dira eta soilik desfilea eta plazako dantzak mantenduko dira. Bestetik, gairik gabeko Kabalkadak edota fikziozko gaiekin egindako antzerkiak agertuko dira.

Eta, bada beste alor bat, abertzaleek antzerki politikoak egiten dituztela. Borroka armatuaren garaia da, Ipar Euskal Herrian laborantzaren lekuan turismoaren garapena ematen da, Seaska sortuko da, irratiak, kooperatibak, euskal kantagintza berriaren loraldia ematen

da, Ez Dok Amairu eta Guk... Euskal konzientzia garatzean, gazteriak antzerkia berreskuratzeko du ideia politikoak hedatzeko. Hainbat pertsona arituko dira antzerki idazle eta eramaile lanetan: Daniel Landart, Antton Luku, Kristiane Etxaluz, Mattin Irigoien, Pantzo Hirigarai eta Gillom Hirigoien, besteren artean.

Iholdiko Tobera entzutetsua har liteke adibide gisara. 1974an, Iholdin bazen gai biziki minberatsu bat: herriko etxeak laku artifizial bat eraiki nahi du turistentzat eihera baten inguruan. Abertzaleek lekuko antzerki forma hartu zuten, komunitatea arriskuan ematen zuen jarrera bat kondenatzeko: "Jarrera politiko edo ekonomikoa kondenatzen da euskaldunen komunitatea arriskuan ezartzen baitu". Iholdi, Baigorri eta Amikuzen eginen ziren, besteak beste, halako Tobera politikoak. "Bada gai bat plazara konbokatzen dituen, hori da gaur egungo Kabalkadekin konparatzen badugu berezitasun handiena".

Berterretzek azaltzen duenez, gaur egun ez gaitu gai batek deitzen plazara. Ospakizunak deitzen gaitu biltzera eta gero hasten gara gai bila. Honela egiten du kezka galde: "Ez bazaitu gai batek konbokatzen plazara, zertara jina zara, zer errateko, zer aipatzeko? Ez bada gairik hitza manipulatzeko dugularik publikoki eta diskurtso bat eraiki behar dugularik, ez badakigu zer erran eta zeri buruz, problematikoa da".

LEKORNEKO KABALKADAKO IKERKETA

Galdera horietatik, gaur egun Kabalkadak zer funtzio dauzkan aztertu du Berterretzek, Lekorneko Kabalkadan oinarrituta. Ondorioztatu duenez, Kabalkadaren funtzio nagusia elkarrekin zerbait egitea da: "Gaur egungo gizartean biziki indibidualistak gara, arrunt manera atomizatuan bizi gara. Bat-batean, herri guziaz astebururo elkartzen hasiko da errepikak egiteko. Badu balio handi bat elkarrekin gauza bat egiteak. Beharbada hor ere bada erresistentzia leku bat, erran nahi dut, mundu hiper-indibidualista batean, bakoitzak bere indar pertsonala ezartzea proiektu kolektibo eta komun batean".

Motibazioa, nagusiki, soziala da. Ikerketa egin aurretik ere bazekien Berterretzek: "Nik nahi

“Kasu emanen dugu dantzaren kalitateari, zirtzilen jokoaren mailari, zer erraten den... Ahal bezainbat jendeak maitatu behar du, beraz, ez da sobera bortitza izan behar jendea biltzeko”

nuen ikertu zenbateraino zen hala, eta ea baziren beste motibazio batzuk. Lehengo motibazio horiek, adibidez botere baten salatzea, edo funtzio identitario batzuk Euskal Herriari buruz eta hola, bazirenez oraino, eta baldin baziren zein heinetan".

Lekorneko Kabalkadaren egileen lagin-ean, %80ak euskaldun gisara aitortzen du bere burua, %15ak euskaldun hartzaile gisara, eta soilik %5a da erdalduna.



Argi esan du Berterretzek: "Ez da gure herrietan dugun egoeraren ordezkatzeko bat. Pentsatzen nuen profil hori izanez, beharbada beste motibazio batzuk izanen zirela, edo motibazio batzuk argiki agertuko zirela lotzen ahalko zirenak profil horri". Hainbat galdera zeuzkan buruan: "Biltzea baldin bada helburua, nola biltzen da herri bat guttiengoak mintzo duen hizkuntza batekin? Are okerragoa da egoera Pastorealean. Ikusiz Tobera-munstraren eta Kabalkadaren historikoa, zer helburu politikoarekin etortzen eta elkartzen dira?". Berterretzek ikerlanean lau multzotan bereizi ditu motibazioak: sozialak, linguistikoak, politikoak edo identitarioak, eta norberaren garapenerakoak.

Kabalkadako parte hartzaileen erantzunetan, motibazio linguistikoa zortzigarren postuan agertzen da, eta horrek harritu du Berterretxe, hainbeste euskaldun izanez hain apala izateak. Baina egoera diglosiko gatazkatsu batean hiztunek zapalkuntza lekuak eta moduak ulertzeko duten zailtasunari egotzen dio egoera: "Gertatzen dena da sistema koherente batean garelara. Usatzen gara. Ohitzen gara euskara ematera leku batzuetan eta beste batzuetan ez. Azken finean ontsa zauku". Ordea, diglosiak etorkizunera begira dakarrena azaltzen du: "Diglosiaren bi ondorio bakarrak dira edo hizkuntza zapalduaren desagertzea edo biak existitzea, baina *ghetto* batean bizi gara".

Egoera diglosikoa agertzen da Kabalkadetan ere, eta aski motibaziorik ez denez, gehienetan ez da hizkuntzen plangintzarik lantzen Kabalkadaren baitan. Euskara eta ideia politikoen lotura aipatzen du Berterretzek, eta horrek ekar lezakeen gatazka. "Problema da euskararekin den konflikto guziaz", dio, gaur egun euskarak baduelako "kolore politiko bat", eta hori "abertzaletasuna" da. Batzuek ez dute transmititu euskara arrazoi horregatik. Euskara aipatu eta aitzinean ezarriz gero, gatazka berpizteko arriskua hartzen da, sumatzen da, eta Berterretzek ea jendeak hori zergatik ez duen egin nahi galdegiten du. "Bi galdera. Bat: zendako ez dute konfliktoa berriz pizten? Eta bigarrena: ea haien zat balio ote duen konfliktoa berriz pizteak. Ez dakit zendako ez den aipatzen, pixka bat bazterten

da, nahiz eta aldarrikatzen duten euskarari leku bat eman nahi zaiola”.

Politizazioarekiko gogo falta ondo-rioztatu du tesian. Egindako galderen artean, motibazio guztien artean bigarren motibaziorik apalena hau izan da: *Kabalkadan parte hartzen badut, nire burua eta besteak politizatze da*. Antzerkilarien artean ere bai: “Harritu naiz, zenta antzerkiak baitu kargu hori, historikoki kodeetan satiran gara. Ez dugu satirarik egiten ahal, ez baditugu ulertzen politikoki boterean jokatzaren diren indar horiek”.

Hirugarren motibaziorik apalena pertsonalitate publikoei trufa eta kritika egitearena da, eta hori ere apal agertzen da antzerkilarien artean. “Hor argiki adierazten da funtzio satiriko hori ez dutela egin nahi. Beraz, galdera da: ez badute hori egin nahi, zer egin nahi dute?”.

Berterretxeren ustez, ikusgarritasunarekin dago lotuta. “Ikusgarria egin nahi dute. Hori azkarki adierazi dute denek”. Hain justu, *Parte hartu nahi dut jendeek gogoan atxikiko duten ekitaldi kultural batean* motibazioa da lehen postuan bistaratu dutena. “Nahi dute ahal bezain ikusgarri onena egin. Pastoraletan ber dinamika da, dantza garaikideak sartzen hasiko dira, inpaktua

eragiteko, ahal bezainbat dantzari. Antzerki ahal bezain bisuala, alde guzietara joaten dena, gauza handiak... Eta gaietan komedian egonen gara. Ez gara joanen sobera karrakatzera eta altxatzera gai zinez minberatsuak, herriko jendea baita”.

Barneko indar eta botere joko horietan sartua direnek kritika egiteko duten gabeziak ari zaigu: “Libertimenduetan gazteak pixka bat kanpo dira, ez dira oraino sartuak mundu aktibo horretan, eta badute holako *pistolkeri* bat. Beraz, haiek futitzen dira”. Baina Kabalkadetan, adin gehiagorekin, parte hartzaileek herrian toki sozial bat badaukatela eta hori indartu nahi dutela azaltzen du Berterretxek. “Ez dira etortzen horra gauzen galtzera, baizik eta gauza baten irabaztera jiten dira. Ez da arrisku sobera hartzen”.

Herriagatik egiten dela, baina jada ez dagoela benetan herririk ohartarazten du: “Komunitateak garaian urtu ziren, gure herriak urtuak dira, fini da herria”. Sozializazio lekuak ttipitu edo desagertu direla eta herria ez dela gehiago herri bezala bizi argudiatzen du.

Egoera horretan, Kabalkadak betetzen duen rolaz ari da: “Kabalkadek ematen dute, berriz, herria sortzeko ilusio hori. Ematen du berriz halako



Herri-antzerki baten zuzendari lanetan ari da Berterretxe, Maulen. Entsegu egun batean eginiko argazkiak dira.





sentsazio bat, herri bat egiten dugula. Nahi dugu herria batu”. Herriak gero eta gehiago desagertu, gero eta Kabalkada gehiago egiten direla dio, Antton Lukuk ere Libertimenduaz azaldu izan duen bezala (ikus bideoa: *Antton Luku: Libertimendua, erro eta aldaketen artean*).

KULTURA PROFESIOALEN ESKU EZ UZTEAZ

Azkenik, Hegoaldearekiko desberdintasunei so jarri eta Iparraldean praktika amateurrek duten garrantziaz aritu gara Berterretxerekin: “Profesionalak ez dute euskal kultura biziartzten. Nik ez ditut urtean hiru ikusgarri ikusi nahi; nik nahi dut antzerki talde bat herrian ukan edo dantza talde bat”. Hegoaldeari begira dio kultura ez dela profesionalen esku utzi behar. “Haiek produktuak egiten dituzte, eta normala da, haien lanbidea da. Eta produktu bikainak egiten dira. Baina guk beste funtzio bat ematen diogu kulturari eta arteari”.

Bestalde, profesionaltasuna ez zaiola nahitaez kalitateari edo proposamen artistikoari lotzen azpimarratzen du: “Artistikoki ez dituzte baitezpada profesionalak aitzinarazten gauzak”. Profesionalizazioak delegazioa ekartzen du, alde batetik, kulturaren praktika eta kultura egitea delegatzen dela; eta bestetik, arriskua da profesionalizazioak diru laguntzekin funtzionatzen duela. Hirugarren puntua ipini dio: “Eta diru laguntzen problema da gure kultura ezartzen dugula instituzioen eskuetan eta esku hartze horrek ezartzen gaitu menpe eta menpeko instituzio horietaz”. Instituzio horiek kulturaren eta hizkuntzaren zapalkuntza mantentzen dutela azpimarratzen du.



“Ez bazaitu gai batek konbokatzen plazara, zertara jina zara, zer errateko, zer aipatzeko? Ez bada gairik hitza manipulatzeko dugularik publikoki, eta diskurtso bat eraiki behar dugularik, ez badakigu zer erran eta zeri buruz, problematikoa da”

Dena den, Hego Euskal Herrian ere, ikus daiteke herri antzerkien praktika. Nabarmentzekotan, azkena ikusi duen iruindarren Pastoral aipatu du: “Julia Fernandez izan da neretako, zinez, artistikoki eta formari begira ekarpen gehien duen pastoral bat, iruindarrek egin”.

Bukatzeko, Iruinkokoaren gisara, plaza antzerki horiek hartu, moldatu eta zabaltzeko gonbidapena egin du: “Iruinkoan egin dutena eredugarria da. Libertimendua hartu eta moldatu dute haien testuinguru sozial eta linguistikora, egin dute haien saltsan, eta bikaina da”. ●

Oraina
ETORKIZUNA
EKOLOGIKOA DA
aurrera goaz!

Bilatu
EURO-HOSTOA
etiketan

CPAEN
NNPEK

eko-logikoak

UNIÓN EUROPEA

cpaen.org
navarraecologica.org

“ ”

Teslak ez du nahi langileek iritzia emateko eskubidea izaterik


URTEBETE BAINO GEHIAGO GREBAN,
ELON MUSKEN ENPRESAREN AURKA

Teslaren aurkako lehen greba –eta bakarra– da munduan, Suedian 2023ko urritik aurrera egiten ari direna. Duela mende batetik hona Suedian egindako grebarik luzeena bihurtu da. IF Metall sindikatua bultzatu du protesta, Elon Musken autogintza enpresak hitzarmen kolektiboa negoziatzeari uko egiten diolako. Sindikatuaren defendatzaile Arturo Vazquezekin hitz egin dugu.

Aurtengo urriaren 27an urtea bete zen Teslak Suedian duen sukurtsaleko (TM Sweden) IF Metall sindikatuko langile afiliatuek greba hasi zutela, enpresak hitzarmen kolektiboa negoziatzeari uko egin ziolako. Nahiz eta Elon Musk ahalguztidunari aurre egitea Goliaten aurkako Daviden borroka iruditu, IF Metall eta bere 300.000 afiliatuak arroka gogorra dira. Bere ekintzek (urtebeteko grebari eustea tarteko), sektore

arteko Eskandinaviako eta nazioarteko langileen elkartasunak, eta mobilizazio indartsuek gatazka hau suhesi bihurtu dute trantsizio berdea deiturikoan enpresa handien abusu korporatiboen aurrean.

Gatazka horri eta trantsizioari buruz hitz egin dugu Arturo Vazquezekin, IF Metallen defendatzaile sindikalarekin, afiliatuen eskubideak defendatu, gatazkak konpondu eta bitartekari lanak egiteko ardura duenarekin.

 ALFONS PEREZ - CLIMATICA.COOP / CC-BY-SA



Nola hasi zen gaur arte luzatu den Teslarekin gatazka?

Stockholmeko iparraldean dagoen Upplands Väsby herrian ezarri zen TM Sweden, autoen salmenta dinamizatzeko eta mantentze- eta konponketa-zerbitzuak eskaintzeko. Zeregin horiek oso espezializatuak dira, Tesla ibilgailuen konplexutasun teknikoa dela eta. Enpresarekin hitzarmen kolektiboa negoziatzen saiatu ginen, baina ez zen modurik izan.

Zergatik da hain garrantzitsua IF Metallentzat hitzarmen kolektiboa sinatzea?

Langileentzat oso garrantzitsua dela ulertzeko, Suediako testu-gurua ezagutu behar da. Suedian ez dago lanbide arteko gutxieneko soldatarik, eta lan-harremanen beste xehetasun asko hitzarmen kolektiboetan ezartzen dira. Patronalaren eta sindikatuen artean negoziazioak aurrera eramateko erakunde publiko bat ere badago: Medlings-Institutet.

Puntu horren garrantzia ezagututa, Teslak hitzarmenei buruzko objekzio zehatzik edo osoko zuzenketarik egin al zuen?

Ezer ez, enpresak ez zuen ezer nahi! Hasieratik, Teslakoek ez zuten inolako hitzarmen kolektiborik nahi. Ez dute nahi lanean ari den jendeak iritzia emateko eskubiderik izatea. Guretzat hitzarmen-tan garrantzitsuena kodeterminazioa da, askatasunez iritzia emateko eskubidea lanean giro hobea izateko. Gure aldetik, beti saiatzen gara elkarrizketa bermatzeko ahalik eta esfortzurik handiena egiten, baina haiek ez zuten ezertxo ere nahi! Halere, ikusi ditugu AEBetako beste enpresa batzuk Suediara iritsi eta hitzarmenik nahi ez zutela esaten, baina azkenean horiek ere sinatu egin dituzte.

Esan duzuna ez dator bat Teslaren irudiarekin, enpresa cool, berde eta modernoa dela dioen horrekin, ezta adierazpen askatasunaren defendatzaile gisa bere burua izendatu duen Elon Muskenarekin ere.

Suedian, Teslaren irudi publikoa hondatzen ari da. Teslarentzat lan egin nahi zuten gazteek jada ez dute interes bera erakusten, argitara atera baitira langi-



leek enpresan jasotzen dituzten lan-baldintzak eta tratua.

Urtebeteko erresistentzia ez da gutxi. Zeintzuk izan dira unerik zailenak?

Suedian inoiz gertatu ez diren gauzak gertatu dira. Langileak greban daudenean, ezin dira beste langile batzuk kontratatu horiek ordezkatzeko. Teslak Europar Batasuneko langileen zirkulazio askea baliatu du Ekialdeko Europatik pertsonak ekarri eta lanean jartzeko. Oso egoera larria da. Gainera, Teslak hitzarmena sinatzen ez badu, beste patronal batzuk atzetik joateko arriskua dago.

Une txarrak izan arren, egoera positiboak ere bizi izan dituzue, ezta?

Dudarik gabe. Elkartasuna ikaragarria izan da. Eskandinaviako sindikatuek (Norvegia, Danimarka eta Finlandia) borrokarekin bat egin zuten. Hasieran, ontzija-beek eta portuetako langileek esan zuten ez zutela Tesla autoz betetako ontzi bakar bat ere deskargatuko beren portuetan. Boikota antolatu da. Teslak bide alternatibo bat bilatu behar izan zuen, eta orain autoak kamioetan ekartzen ditu Alemaniatik. Gainera, Suediako argindar sindikatuek ez dute kargaleku berririk instalatzen, eta posta sindikatuek ere ez diote gutunik banatzen Teslari.

Horrek guztiak nola eragin du Teslan?

Tailerrak ez dira autoen mantentuari eusteko gai. Konponketarako edo mantentze-lanetarako itxaronaldia hainbat hilabetetako da, eta gero eta gehiago ari zaie zailtzen.

Impaktuak gorabehera, Muskek superbotereak dituela dirudi. Zergatik uste duzue Tesla menderatuko duzuela?

500 urtez erresistitzeko gai gara! Suediako, Eskandinaviako, Europako eta munduko gainerako sindikatuen babesa dugu. Guk azkenerraino jarraituko dugu borrokan.

Zuen borroka eskala handiago batetik aztertzen badugu, trantsizio berde eta digital baten ondorioa da, transnazional handiek menderatzen dutena, eta erakunde publikoak bideratzaile huts izatera mugatuta dituen. Gainera, megalomanoak sortzen ari dira, Musk, Bezos, Gates eta enparauak.

Zer iritzi duzue?

Beren etekinak maximizatu nahi dituzten kapitalistak dira denak. Merkatuaren jabe izan nahi dute. Elon Musken kasuan, berak bere burua ikusten du autoen merkatuaren etorkizuneko jabe.

Baina gauza garrantzitsuenetako bat da trantsizio berdea ea benetan berdea ote den galdetzea. Ingurumenaren mesedetan egindako trantsizioa al da? Nire ustez, ez. *Greenwashing*-a da. Adibidez, ibilgailu elektrikoa auto berdea al da? Auto kutsatzaileak saltzen dira berdeak bailiran, baina fabrikazio-materialak jendeak esklabu gisa lan egiten duen herrialdeetatik datoz. Ez dago bateriak birziklatzeko sistema eraginkorrik, eta, azkenean, herrialde pobretuetara esportatzen dira. Ez dago zirkulartasunik. Aurrerapen tekniko globala behar dugu, birziklatu eta natura gehiago ez suntsitzeko.

Badira, halaber, automobil-parkea murrizteko norabidean doazen proposamenak, baita ibilgailu pribatuen kopurua jaistearen aldekoak ere.

IF Metall-en ustez, trantsizio berdea oso garrantzitsua da, baina onartzen dugu gure afiliatu askok planeta suntsitzen ari diren sektoreetan lan egiten dutela.



Greta Thunbergekin gauzak diren bezala esan dituen arren, gero ez da ezer gertatu. Estatu demokratikoek ekoizpen- eta kontsumo-eredua aldatzearen alde egin behar dute. Mugak egon behar dira, eta ekoizpena eta kontsumoa planifikatu behar dira, ingurumena ez suntsitzeko. Gure jarrera da teknika hobeto erabili behar dela ekonomia benetan zirkular baterantz joateko.

Azkenik, Suediako iparraldean egin duten trantsizio berdearen apustuari buruz galdetu nahi dizut, Kirunatik

Luleiusera doan berrindustrializazio-korridoreaz. Inbertsio handiak eta langile gehiago behar dira iparraldean, eta Suediako Demokratien eskuin muturrak gogor kritikatzeko du horiek migratzaileak izatea. Aldi berean, NorthVolt baterien enpresak langileen kopurua %20 murriztu nahi du. Nola ikusten duzu trantsizio berdearen etorkizuna Suedian?

NorthVoltek 2.500 pertsona kaleratuko ditu, batez ere, langile atzeritarrak. Eta bateriak ekoiztu behar dira jendea lanean hil gabe.

Nola?

NorthVolteko lau langile hil dira etxean eta oraindik ez dakite zergatik. Guretzat ez da ohikoa lantegi berri bateko langileak hiltzea.

Funtzionatuko al du trantsizioak?

Uste dut funtzionatuko duela, baina arriskua kapitalismoa bera da. Hain handia den zerbait antolatze-ko, aldezturik esperientzia izan behar da. Egin diren inbertsioak oso azkarrak izan dira, gehiegi. ●

BARNETEGIRAKO SUKALDARI BILA GABILTZA

tlf: 944237732 | sukaldaribila@gabrielaresti.eus

ARMAGINTZA INDUSTRIAREN “MOLDAKETA ERALDATZAILERAKO” PROPOSAMENA

Armagentzari loturiko euskal enpresa eta erakundeak 70etik 200 baino gehiago izatera pasa dira 2008tik hona

Armagentzari loturiko Hego Euskal Herriko “enpresa, zentro edo erakundeak” hirukoiztu egin dira azken hamabost urteetan, Gasteizkoak talde antimilitaristak hurrenez hurren 2008an eta 2024an egindako ikerketen datuek azaleratu dutenez. Aurkeztu berri duten *Conversión de la industria militar en Euskal Herria para no fabricar mas guerras* (Armagentza industriaren moldaketa Euskal Herrian, gerra gehiago ez

sortzeko) liburuaren eduki aipagarrienetakoa da, baina ez bakarra. European eta euskal jardartean armagentzak eta militarismoak izaten ari diren gorakada handia aztertu du taldeak. Horri guztiari aurre egiteko armagentza sektore osoaren “moldaketa eraldatzailea” proposatu du, sektoreko langile eta sindikatuekin zein herritar eta herri mugimenduekin elkarlanean burututa egingarri ikusten dutena.

 ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Liburu mardula da, orri kopuruan zein edukian, ironia lagun idatzita egonik ere. Sarreran azaltzen denez, liburuaren jatorrizko helburua ez zen izan 2008an burutu zuten armagentza sektorearen ikerketa berri- tzea, baizik eta, izenburuak iradokitzen duen moduan, arloko industriaren moldaketarako proposamena egitea.

“MOLDAKETA ERALDATZAILEA”, GERRAK HEMEN HASI EZ DAITEZEN

Liburuak “ezarri nahi diguten ideia falsu bat” apurtu nahi du: “Armagentzaren moldaketa ezinezkoa da, ez da inoiz lortu eta ez da inoiz lortuko”. Horretarako, besteak beste, mundu osoan eta hainbat garai historikotan izan diren moldaketa esperientziak jasotzen ditu lanak, munduan erreferentziazkoa dena sakonkia-

go aztertuta: 1970-80 hamarkadetan Erresuma Batuko Lucas Aerospace armagentza enpresarena, “zeinean langileak [milaka] gai izan ziren 150 produktu zibil garatzeko, produkzio militarra alboratuz gero eraikin horietan ekoiztu zitezkeenak”. Produktu berri horiek erabilgarritasun soziala izango zuten, inguruko herritarrek berek zehaztutako behar eta nahiak aseko lituzkete, eta lan prozesua bestela antolatuta eraikiko litzateke, “sistema produktiboa bera auzitan jarrita”.

Ia mende erdia joan da azkenean gauzatu ez zen proiektu hartatik, baina azken urteetan armagentzaren moldaketarako ekimenak ugaltu dira, eta Lucaseko langileen borroka mundu mailako erreferentzia izaten jarraitzen du.

Liburuaren bosgarren eta azken atalean Euskal Herriari eta armagentzaren

moldaketari begira jartzen gaitu Gasteizkoakek. Ildo horretan izan diren ekimen eta diskurtsoen erreposoa egin ostean, proposamen orokorra baina aldi berean zehaztasun dezentekoa luzatzen du talde antimilitaristak, “auzolan erraldoia”: moldaketa sustatu sindikatuak eta langileak (horietako kopuru esanguratsua behintzat) aliatu bilakatuta; industriak kokatuta dauden herrien parte hartzearekin; baita herri mugimenduen protagonismoarekin ere. Hori guztia, jakina, “gerrak hemen hasi ez daitezen”, baina baita bestelako ataka larriei erantzuteko ere, hala nola energia krisia, lehengaien agortzea edo klima larrialdia.

Helburua lortzen zaila dela onartzen du talde antimilitaristak, baina azpimarratzen du uste baino gauzagarriagoa ere badela, eta horretarako, besteak beste, ELA, LAB, Steilas eta ESK sindikatuek

gaiaren bueltan egin dituzten adierazpenak jasotzen ditu liburuak. Are esanguratsua: iturri antimilitaristek ARGIA-ri azaldu diotenez, talde antimilitaristen eta sindikatu horien arteko lehen bilera batzuk izan dira azken urtean armagintzaren moldaketaz hitz egiten hasteko. ARGIAk urtarrileko LARRUN monografikoa eskainiko dio gaiari.

GERRA HOTSAK EUROAPAN, DIRUAREN HOTSA ARMAGINTZA SEKTOREAN

Badatorrela gerra! du izenburu liburuaren lehen atalak. Dokumentazio lan sarkon baten eskutik, azken urteotan armagintzak eta militarismoak Europan bizi duten gorakada aztertzen du, hainbat elementuren arteko loturak ikusarazita: armagintza industriaren lobby lana AEBetan eta Europan; Europaren sumisioa AEBen interesekiko; Borrell edo Von der Layenen beldur-mezuak; edo Europako araudien eta gerrarako aurrekontuen eraldaketak. Azulan militarista horren azken lorpena da, adibidez, 2024ko martxoan onartu berri den Europako Defentsa Estrategia Industrial, zeinaren arabera 2025-2027 urteetan Europar Batasuneko aurrekontutik 1.500 milioi euro bideratuko diren armagintza industriaren "lehiakortasuna" hobetzera. Europako eta Euskal Herriko armagintzak hazten jarraituko du, hortaz, itxura guztien arabera.

Hori guztia eta aurrekari historikoak aintzat hartuta, etorkizun hurbilaz aurreikuspen batere lasaigarriak egiten ditu Gasteizkoak taldeak, kapitalismoak Europako lurretan dimentsio handiko gerra bat sustatu dezakeela iradokitzen baitu.



2023ko abenduaren 29an Sapa armagintza enpresa salatzeako ekintza burutu zuen Ehun mugimenduak.

EHUN MUGIMENDUAREN BIDEO BATETIK HARTUA

HERIOTZAREN EUSKAL MERKATARIAK, APARRETAN

Liburuaren bigarren, hirugarren eta laugarren atalak Hego Euskal Herriko (ezinezko egin baitaie Ipar Euskal Herriko daturik lortzea), armagintza sektorea aztertzen dute. "Heriotzaren merkatarien" jarreraren aldaketa esanguratsu bat azpimarratzen dute: 2007ko ikerketa garaian beren negozioak ezkutatzeko ahalegina egiten bazuten, egun konplexurik gabe aitortzen dute, batzuek harrotasunez egin ere. Antimilitaristen irudiko, euskal jendartearen oro har izan den "mentalitate aldaketa indartsuaren" isla da, militarismoaren diskurtsoak eta baloreak gero eta onartuago dituena.

Bigarren kapituluak euskal armagintza sektorearen ("xahuketarako eta gerrarako produkzioa", liburuan) egungo ezaugarriak eta gertatzen ari diren "eraldaketa sakonen" zergatiak aletzen ditu, besteak beste, laguntza publikoen

biderkatzea, ikerketa zibilaren "koop-tazioa" industria militarrengatik, hezkuntza sektorearen "inplikazioa", edo babes politikoa.

Hirugarren atalak armagintzari loturiko zortzi erakunde edo enpresa aztertzen ditu, bakoitza egungo euskal armagintzaren ezaugarri nagusien eredu gisa hartuta: ITP Aero enpresa erraldoia, Sener enpresa "tradizionalista", Tecnia ikerketa eta garapen zentroa; Satlantis startup-a; Ega Master esku-erreminta enpresa; kontrolik gabe jarduten duen Ecia Xemein enpresa; Nafarroako Unibertsitate Publikoa; eta BBVA banketxea.

Laugarren kapituluak, azkenik, 200dik gora enpresa zerrendatzen ditu banan-banan eta herrialdeka, armagintzaren sektorearekin duten lotura labor aipatuta.

IZUA, AUZO-LOTSA, ESPERANTZA

Finean, liburu mardul eta sakona ondu du Gasteizkoak talde antimilitaristak beste behin, Corsino Velaren hitzaurreak irekitzen duena. Bere irakurketak hasierako izu-ikararik auzo-lotsara, eta auzo-lotsatik esperantza printza batera eraman gaitzake: izu-ikara Mendebaldean, Europan eta Euskal Herrian militarismoak bizi duen gorakada eta bizi dugun gerra (gehiagoren) arriskua aletzen duenean; auzo-lotsa Euskal Herriak armagintzarekin eta beraz munduko gerrekin duen lotura gero eta senda-goa aztertzen duenean; eta esperantza izpitxo, horri guztia zalantzan jarri nahi duen "moldaketa eraldatzailerako" proposamena irakurtzean. Denon eskuetan dago hurrengo urteotan ze sentimendu gailenduko den erabakitzea. ●



Larunbatean aurkeztu du liburu Gasteizkoak mugimendu antimilitaristak, Donostian.

BAKE EKINTZA ANTIMILITARISTA

“ ”

Kaleetan gerra tankeak ikustea normalizatu dugu, gerran egon gabe ere

Vidalina Morales, nekazaria eta ekintzailea

Santa Marta komunitateko (El Salvador) ADES Garapen Ekonomiko eta Sozialerako Elkarteko presidentea da Vidalina Morales. “Rol horretatik harago, ingurumen ekintzailea ere banaiz, giza eskubideen defendatzailea eta emakume baserritarra; hainbat urtez borrokan egon diren

nekazarien landa-komunitateetatik nator”, esan digu. Azaroan Bilbon izan zen, OMAL Latinoamerikako Multinazionalen Behatokiak antolatutako “Trantsizio ekosoziala eztabaidan: Latinoamerikaren eta Euskal Herriaren arteko elkarrizketak” nazioarteko topaketetan.

 JULENE FLAMARIQUE JIMÉNEZ

 HODEI TORRES / ARGIA CC BY-SA

El Salvador korporazio eta enpresa handien atzaparren esku uzten ari da Nayib Bukele presidentea, giza eskubideen eta lurraren defentsan diharduten erakundeek salatu dutenez. Gainera, “gaizkile-taldeen aurkako gerra” deritzon horren aitzakiapean, giza eskubideen etengabeako urraketa baimentzen dute, ekintzaileak jazarri eta atxilotuta. Anabasa horren erdian dugu Vidalina Morales, Garapen Ekonomiko eta Sozialerako Elkarteko burua.

Noiz eta zein testuinguruan sortu zenuten ADES? Zein helburu du elkarteak?

Santa Martako komunitateak sortu zuen duela 31 urte, 1993an. 1980ko hamarkadan, El Salvadorreko gatazka arma-

tua puri-purian zegoenean [gatazka 1980tik 1992ra iraun zuen] erasoak jasane zituen, Hondurasera ihes egin eta 1987an Santa Martara itzuli zen komunitateak sortu zuen.

Besteren artean, ADESCOS edo Garapen Komunaleko Elkarteak laguntzen ditugu, baita emakumeen antolakundeak ere. Sexu aniztasunaren inguruko taldeekin ere aritzen gara, Santa Martako hezkuntza komunitatearen prozesu baten parte izan gara, azpiegituren kudeaketa lanetan arituak gara...

1993an komunitatearentzako lurren erosketa kudeatzeko eta gure gazteak hezkuntza prozesuan laguntzeko jaiotzen erakundea izanik, ezerezetik hasi den komunitate gisa ulertzen dugu gure burua. Gaur-gaurkoz, Ur Batzordeekin,

uraren arloan lan egiten duten tokiko erakundeekin, eta agroekologiaren inguruko elkarteekin batera egiten dugu lan. Agroekologiaren gaia asko landu izan dugu azken bolada honetan. Historikoki inposatua izan den nekazaritza tradizionalarekiko alternatiba egokia dela uste dugu.

Santa Martatik ihes egin behar izan zenutela aipatu duzu. Hura izan zen El Salvadorreko gatazka armatuan eraso gehien jaso zituen eremuetako bat. Nola eragin du horrek zuen komunitatea eraikitzeko moduan?

El Salvadorren hamabi urte iraun zituen gatazka armatu bat izan zen, 1992an amaitu zena Bake Akordioak sinatu ziztuztenean. Orduan antolaturik zeuden



komunitateetako kideak jazartzen eta hiltzen zituen armadak, Santa Martan, kasu. Jazarpen militarra zela-eta Hondurasera egin behar izan genuen ihes; bertan indarrak hartu eta sei urte beranduago, 1987an, Santa Martara itzuli ginen. Komunitate historikoa gara, eta modu antolatuan lortu dugu, nolabait esateko, inguruko tokietako ohiko bizimoduetatik pixka bat aldentzea. Esate baterako, energia elektrikoa bezalako oinarritzko zerbitzuak eskuratu ditugu, lur komunalak, ur eta etxebizitza proiektuak, hezkuntza sistema osoa (eskolaurretik batxilergora) eta abar ditugu. Antolakuntzaren eta ADES elkartearen laguntzaz komunitatearen beharrak ase ditugu.

2017an meatzaritza metalikoaren industria debekatu zuen legea onartzea lortu zenuten. Nolako izan zen prozesua?

Santa Marta komunitatea laguntzeko jaio zen ADES, baina 2000ko hamarkadan Cabañas departamenduko beste komunitate batzuekin hasi ginen lanean, eta meatzaritza metalikoaren aurkako

“ ”

Uste dugu agroekologia alternatiba egokia dela historikoki inposatua izan den nekazaritza tradizionalarekiko

borrokara batu ginen. Meatzaritzaren industria debekatuko zuen lege baten alde borroka egin genuen 2004tik 2017 ingurura arte, kongresuak aho batez industria hori debekatuko zuen legea onartu zuen arte. Diputatu denek, 69ek, alegia, legearen alde bozkatu zuten.

Meatzaritza metalikoa debekatzeko borrokan ari ginela, Kanadako transnazional batek El Salvadorri jarritako demanda bati egin behar izan genion aurre, Washingtonen dagoen CIADI (Inbertsioen inguruko Desadostasunak Konpontzeko Nazioarteko Zentroa)

izeneko auzitegian jarritakoa. Sei urte eman genituen mobilizatzen, eta CIADI zer zen ezinbestean ikasi genuen; Munduko Bankuaren instituzioa da, finean, enpresek beren interesak defendatzeko sortzen dituzten auzitegiakiko bat.

Bada, 2016an, auzitegi horrek El Salvadorreko Estatuaren aldeko epaia eman zuen. Enpresa kanadiarrak 250 milioi euro inguru eskatzen zizkion El Salvadorri, komunitateek uko egin ziotelako Cabañasen meategiak ustiatzeko proiektuari. Garaipena izan zen, baina mehatxuak, kriminalizazioa eta erailketak ekarri zituen, haurdunaldiaren zortzigarren hilabetean zegoen emakume batena barne. Baina, esan dezagun, borrokak arrakasta izan zuela nolabait, ezta? Estatuak ez baitzion eman enpresari eskatzen zuen dirua. Komunitateek antolatutako borroka izan zen. El Salvadorrek jarritako abokatu taldea oso arduratsua izan zen.

Bilbon emandako hitzaldian azaldu zenuenez, meatzaritza industria berrezartzen tematzen ari da Bukeleren gobernuak, ezta?

2021etik aurrera, Bukeleren gobernuak bat egin zuen Meatzaritza, Mineral, Metal eta Garapen Jasangarriari buruzko Gobernuarteko Foroarekin, zeinak 77 herrialde biltzen dituen, mundu mailan meatzaritza metalikoa sustatzeko. 2022an meatzaritza metalikoa debekatzeko legearekiko beste lege paralelo bat sortu zuen: Hidrokarburoen eta Meategien Zuzendaritza Nagusia sortzeko legea. Lege horrek gure susmoak piztu zituen eta auzia publikoki salatzen hasi ginen. Urte berean meatzaritza metalikoa debekatzeko legea berrikusteko eta eguneratzeko 45 milioi dolarreko funtsa xahutu zuen gobernuak, eta mobilizatzen hasi ginen. Handik gutxira eta honen harira Santa Marta komunitateko eta gure antolakundeko kide batzuk atxilotu zituzten.

“Los cinco de Santa Marta” kasuaz ari zara?

Bai. Etengabe egin genuen borroka gure kideak aska zituzten. Azkenean merezi izan zuen, oso korapilatsua den Bukeleren “Salbuespen Erregimenpean” askatu zituztelako. 2022ko martxotik Batzar Legegileak onartutako oinarritzko giza eskubideak urratzen dituen erregimen batean bizi gara.

2023ko urtarrilaren 11n zuzenean atxilotu zituzten inolako prozesu judizialik egin gabe, eta urte bereko irailean etxeko atxiloaldia ezarri zieten 2024ko urrira arte. Azken epaiketean askatu zituzten.

Esan beharra dago horren guztia- ren harira El Salvadorren asko indartu direla lurraren, uraren eta bizitzaren aldeko mugimenduak. Komunitate, antolakunde eta elkarte asko batu ginen orduan, eta gure kideen askatasuna lortu genuen.

Bukeleren erregimenaz zer esango zenuke?

Militarizazioak izugarri egin du gora erregimen honetan. Gobernuak segurtasuna sendotzearen aldeko apustua egin du, diru asko inbertitu du horretan. Diru horretan zati handi bat 1992ko Bake Akordioaren harira sortu zen Polizia Nazional Zibilak eramaten du, eta armadak ere kopuru nabarmena jasotzen du. Kaltetan gerra tankeak ikustea normalizatu dugu, gerran egon gabe ere.

Giza eskubideen defentsan dihardugunok erregimenaren jazarpena jasaten dugu, kriminalizatzen gaituzte. Pertsona errugabe ugari dago espetsxean. Ez dute



“Santa Martako bostak” 2023an atxilotu zituzten, prozesu judizialik egin gabe, 1989an emakume bat –ustez armadaren informatzailea– hiltzea leporatuta. Ingurumenaren aldeko ekintzaileen aurkako auziak ez duela oinarri juridikorik eta atxilotuen kontrako frogarik ez dagoela salatu dute El Salvadorreko hainbat erakundek, ADES elkarteak tartean.

beharrezkoa den prozesu judiziala izan, eskubide hori ukatu digute. “Los cinco de Santa Marta” kasuko kideekin horri aurre egin diogu, baina ez zaio mundu guztiari gauza bera gertatu.

Salbuespen erregimenak abiatutako “gaizkile-taldearen aurkako gerran” atxilotu zituzten 72.000 pertsonetatik 7.000 askatu dituzte duela gutxi, errugabe dirrelako, baina ziur naiz errugabe gehiago dagoela. El Salvadorreko Laguntza Juridiko Humanitarioa erakundeak azaleratu duenez, dagoeneko 300 pertsona inguru hil dira Bukeleren espetsxean.

Zein leku dute giza eskubideek salbuespen-erregimenean?

Eskubideak etengabe urratzen dira; esan bezala, pertsona bat atxilotzen dute, ez du ez epaiketarik ez deus jasotzen eta espetsxera sartzen dute. Kartzelan baldintzak oso-oso txarrak dira; jende pilaketa dago, gaixotasunak, garbitasun eza...

Gure kideak askatu zituztenean oso gaixorik irten ziren bertatik; pisu gutxiarekin, desnutrizioak jota, eta diabetes edota asma bezalako gaixotasunak tratatzeko ez zuten sendagairik hartu. Hesien artean dagoen ororen errealitatea da hori.

El Salvador da bitcoina estatuko moneta gisa onartzen duen munduko lehen herrialdea, Bukeleren Gobernuak erabakita. Hura eta AEBetako dolarra dira moneta ofizialak...

Bitcoina moneta nazional bilakatzeko gobernuaren proiektuak porrot egin du. Legeak dio txanpon hori erabili dezakezula El Salvadorren, zirkulazioan dago, baina ez du ongi funtzionatzen, sekula ez delako erabili. Birtuala den zerbaiten modukoa da, eta altxor publikoko dirutza xahutu da horretan.

Ingurumen-mugimendutik uko egin diogu huts egin duen proiektu horri. Izan ere, badakigu horrelako proiektu bati eusteko maila goreneko teknologia eduki behar dela, eta El Salvadorrek ez du aukera hori. Gainera, salvadortarrok ez dugu halako proiekturik galdegin, ez dugu sekula halako eskakizunik egin.

Uste duzu bitcoina monetizazioak megaproiektuak susta ditzakeela?

Bitcoinaren proiektua indartzeko meatzaritza industriaren aldeko apustua egingo zutela uste genuen, lehen aipatu dudana Hidrokarburoen Legea onartu zenean bitcoina monetizatu zutelako. Gobernuak oso argi zuen nazioartean horren ongi saldu zuen moneta birtualaren proiektua indartzeko meatzaritza-ustiapena indartu beharko zuela, geroago geotermikoak edota termoelektrikoak sortzeko. Momentuz hala izan ez bada ere, megaproiekturen bat edo beste berreskuratu du gobernuak horri tiraka.

Megaproiektuak garatzeko asmo handia duen gobernariak ditugu gureak, gure herrialdea korporazio eta enpresa handien esku uzten ari dira. Portuak, aireportuak eta halakoak eraikitzen ari dira etengabe. Beste azpiegitura turis-

tiko batzuk ere eraikitzen ari dira, eta jendetza etxegabetu dute proiektuak aurrera eramateko. Megakartzela egiteko, halaber, pertsona asko bota zituzten beren etxeetatik.

Herrialde “pobrea” garen arren, oso aberatsak gara baliabide naturaletan, eta orain gobernu gure lurra eskaintzen ari zaie transnacionalei, uranioa ustiatu dezaten. El Salvadorreko kostaldean petrolio dagoela diote zurrumurruak, baina oraindik ez da ziurtatu. Une honetan gobernu petrolio ustiatzeko proiektuak diseinatzen ari da.

Eta ez hori bakarrik, aurkitu berri duten torio izeneko mineral bat ustiatzeko negoziotan ari da AEBetako enpresa batekin, eta litekeena da aurrerago energia nuklearreko instalazio bat jartzeko aukera izatea. Gobernu honek proiektu handiak abiatzen ditu, populazioaren eta gure ingurugiroaren kaltetarako.

Zer dakizue torioaren egitasmo horri buruz?

Nahiko gauza berria da, eta ez dago informazio askorik. Dena dela, gobernu AEBtako Thorium enpresarekin negoziak egiten hasia dela ezagutzera eman dute hainbat ingurumen-sarek.

Modu berean jakin dugu Cabañas aldean, nire jatorrizko departamenduan, meatzaritza ustiapena egin nahi duela enpresa batek. Gobernuak gure baliabide mineralak saltzeko eta erauzteko interesa du, interes zekena, eta hori ere salatzen ari gara egun. Meatzaritza-industria berrezarri nahi dute kosta ahala kosta, hura debekatzen duen lege bat dagoen arren.

Aurrera begira, zein erronka dauzka garapen jasangarri eta sozialaren alde egiten duen komunitateak?

Oso garbi dugu ez dugula meatzari-



“ ”

Kartzelako baldintzak oso-oso txarrak dira; jende pilaketa dago, gaixotasunak, garbitasun eza...

tza industriarik nahi El Salvadorren. Agroekologia eta elikadura-burujabetza bezalako prozesuen alde egingo dugu

beti, gure herrialdea Monsanto bezalako transnacionalek inbaditu dutelako. Gure lurak lantzeko esentzia izorratu du horrek, hemengo lurak eta ibaiak ere kutsatu ditu.

Beste era batera nahi dugu bizi, eta horixe da gure erronka. Halaber, gure gaitasunak eta beste komunitate batzuekin harremanak sendotu ditugu, transnacionalen interesen aurrean gure lurak defendatzen ditugu, gure herrialde “txiroak”. Hemen bizi gara, eta hemen jarraitu nahi dugu bizitzen, agroekologia eta elikadura-burujabetzaren alde eginez, orain arte jardun dugun modu berean. ●



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENU BEREZIAK
EKITALDIAK, OSPAKIZUNAK, FAMILIA TOPAKETAK...

USURBIL • 943 37 11 50 • www.atxegajauregia.com

DURANGOKO AZOKA



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Lau egun eta istant bat

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Jendetzaren artean aurrera noa eta jada gurutzatu ditut mutil gazte bat letxuga bat eskuetan duela, erraldioen liburuak aurpegia argitu dion haurra, lehen krema hidratatzailea egiteko aholkuak errepasatuz sendabelarren liburua begien aurretik kendu ezinda besoan kolpatu nauen emakume nagusia, umeez superbotereak dituztela kontatuz lagunari txapa ematen ari zaion irakaslea, eta jendez mukuru egonda ere, Landako-pasilloaren beste puntatik nola datoren ikusten den jertse hori-hori bat. Kanaberen babesean, azken urteetan legez, ARGIAk aurten jarri dituen sei stand-etara heldu naiz eta polita izan da egonaldia.


Martxa handia dago. Gerturatzen direnetariko asko harpidedunak dira eta Gabonetako erosketak egiteko aprobeztatu nahi dute Durangoko Azoka. Zerrendarekin datoz batzuk, besteak urteroko egutegi takoaren bila. Begira nagoela, harpidetza bana egitera etorri dira bi lagun. Diote, urteak daramatzatela ARGIA Internetez doan irakurtzen eta proiektuari babesa eman nahi diotelako egingo direla

harpidedun. Bukatu dutenean, beraiekin egon den ARGIAko kideak azpimarratu dit ez direla harpidetza egitera etorri diren lehenak eta oso pozik direla jendearen harrerarekin. Han nabilela, Zaldibarko ama-alaba batzuk hurbildu dira eskerrak ematera. Une zirraragarria izan da adierazi dutenean jaso berri dutela 50 urtetik gorako harpidedunei bidalitako oparia; oso eskertuta daudela eta beraiek direla Lasarte-Oriara iritsi diren esker-gutunetako bat idatzi dutenak. Eta bitartean ikusten ditut Garbiñe Larrea eta Jakoba Errekondo, bakoitza bere fan-ekin, zalan-tzak argitzen eta jendeari entzuten; baita Miguel Arribas *Kelo* eta Josebe Blanco ere, hazien zein ardien inguruan interesa dutenekin hitz egiten, jende berria ezagutzen, jakintza zabaltzen; Koldo Rabadan, Amaia Egidazu, Iñaki Sanz-Azkue, Eñaut Aiertzagüena, Adur Larrea eta Gorka Bereziartua, bakoitza bere esparrutik haurren munduan murgiltzen... Eta denek daramate erosketa batekin ARGIAren azken aldizkaria poltsan, opari. Ederra saltsa aurten ere kanaberapean.

Euria goian-behean atera naiz Landakotik eta bisita bat egitera gerturatu naiz Andra Mari elizaren parean jarritako ARGIA / Inor ez da ilegal dendarra. Han ere topera, tartean Boubacar Diouf buru-belarri. Zortea izan dute, eguraldi eskasa hobeto pasatzen baita denda barruan kanpoko postuan baino. Inor ez da ilegal proiektuan sortutako bi nobedadeak oso ondo saltzen ari dira eta baita lehendik daudenak ere. Kasu batzuetan aleak agortuta, jendeari esaten ari dira Durango pasatakoan stock-a berritu eta azoka.argia.eus webgunean egongo direla berriz eskuragarri.

Indarrez eta gogotsu hartzen du urtero ARGIAk Durangoko Azoka, urteko produktuen salmentarako bezainbat, proiektua ezagutzera emateko plaza polita baita. Talde osoa aritzen da stand-etan, bakoitza bere arlotik, gerturatzen denarekin solasteko, lurra-ri loturiko lanez bezala erreportajeaz, hezkuntzaz, haziez edo artzantzaz. Oso gustura daude 2024ko Durangok eman-dakoarekin. ●

Santa Klausen ejertzito antikapitalista



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Kopenhage, 1974ko abenduaren 18a. Eguerdiko hamabietan ferry bat iritsi zen portura eta bertatik 100 Santa Klaus inguruz osatutako taldea lehorreratu zen. Antzara erraldoi bat zeramaten haiekin. Asmoa “Troiaiko antzara” moduko bat egitea zen, eta, hirira iristean, bizarzuriz mozorrotutakoak barrutik ateratzea. Baina hainbat eragozpen tekniko medio, eskuz egindako hegazti erraldoia arrastaka eramatea erabaki zuten.

Langabezia krisi larriak hartua zuen herrialdea, eta Santa Klaus armada bitxia herritar goibelak pizten ahalegindu zen hurrengo egunetan, goxokiak banatzen, hurrei ipuinak kontatzen, zahar-etxeetan gabon kantak abesten...

Abenduaren 22an General Motors fabrika itxi berriaren hesiak gaintitu eta sinbolikoki lantegia eta lanpostuak “berezko jabea itzuli” zizkieten. Biharamunean, gabon bezperan, Magasin saltoki handian sartu ziren. Liburuak,

jostailuak eta bestelako salgaiak apaletatik hartu eta bezeroei oparitzen hasi ziren, “Eguberri on guztio! Gaur inork ez du ezer ordaindu behar!” oihuka. Segurtasun guardiak jendeari opariak indarrez kentzen hasi ziren eta arduradunek Poliziari deitu zioten. Poliziek hainbat Santa Klaus jipoitu eta atxilotu zituzten, haurren negar eta heldu askoren protesta artean.

Santa Klaus batzuek ihes egitea lortu zuten eta gertuen zegoen bankuan sartu ziren. 50 milioi koroa eskatu zituzten, baina haien asmoa ez zen dirua lapurtzea, interesik gabeko mailegua lortzea baizik, gero dirua gehien behar zutenen artean banatzeko. Haiek ere berehala atxilotu zituzten.

1969an Christiania komunitatean sortutako Solvognen (“Eguzkiaren gurdia” danieraz) antzerki taldeko kideak ziren.

Hurrengo asteetan daniar komunikabideetan eztabaida piztu zen antzerkiaren mugei buruz, oholatz gaintutako halako ekintzen zilegitasunari buruz, adierazpen askatasunak demokrazian eragin zitzaizkeen arriskuei buruz...


Baina ekintzaileek zabaldu nahi izan zuten mezua itzalita geratu zen. Langabeziak astindutako herritarren artean Eguberrietako kontsumismo basatia bultzatzen zuen sistema salatu nahi zuten eta, besterik gabe, “langileei beraiek egindako jostailu eta opariak itzuli”. ●



Debrako diskoak esaten diguna

1999an, Debra (Alemania) inguruan duela 3.600 urte inguruko disko bat aurkitu zuten, ilargia, eguzkia eta izarrak irudikatzen dituena, ezagutzen dugun zeruko astroen errepresentaziorik zaharrenetakoa. Brontzeko pieza teknologia berriak erabiliz aztertu dute orain eta emaitza *Scientific Report* aldizkarian argitaratu berri dute. Ikerlanak agerian utzi du tek-

nika sofistikatua erabili zutela plaka lantzeko: 700 gradutan hamar berotze ziklo behar izan zituzten, tarteka brontzea mailukatuz, eta berregoste prozesua ere egin zioten materialaren barne egitura egokitzeko. Brontze Aro goiztiarreko artisauen prozesamendu maila erakusten du horrek, eta, diskoaz gain, adibidez, aizkorak seriean ekoizteko aukera eman zela. ●



ANHALT

GABONETAN TOKIKOA ETA SASOIKOA KONTSUMITU ETA, BIDE BATEZ, ISRAELGO PRODUKTUAK BOIKOTEATU



GOIURI ALBERDI ETA
AINTZIRA OÑEDERRA
ASUNEK

Palestinarren genozidiorako Israeliek erabiltzen duen arma nagusietako bat gosea da. Alde batetik, Gazara elikagaiak sartzeko debekuekin, eta, bestetik, Palestinako elikadura-burujabetza ezabatuta.

Azaroan Palestinako Nekazaritza Lan Komiteen Batasuna (UAWC siglak) sindikatuko kide batek Euskal Herria bisitatu zuen. Nekazari palestinarren egoera azaldu zuen, nola sindikatuko kide asko erailak izan diren eta nola debekatzen zaien Gazan elikagaiak sartzeari, gosea genozidioaren dispositibo nagusizat hartuta. Hona heltzen zaigun informazioak ez omen du errealitatearen gordintasunaren hamarren bat ere erakusten.

Kolono israeldarrek urteak daramatzate Palestinako nekazaritza hondatzen. Israelgo nekazaritza Palestinako lurraldearen okupazio militarrean sustengatzen da, bereziki Jordan haranean: Israeliek palestinarren lurak eta baliabide naturalak arpilatzen ditu eta Palestinako eskulana ustiatzen du. Palestinako landa-komunitateen biziraupena mehatxatzen duen desjabetze-estrategia zabalago baten parte dira kolonoen indarkeria, lurren lapurreta, zuhaitzen suntsitzea, uztak hondatzea, hazien bereganatzea eta asentamenduak zabaltzea. Palestinarrek beren lurrekin duten lotura hausteko eta elikadura-burujabetzan atzerapausoak emateko mugimendu kalkulatuak dira.

Urteroko oliba bilteta palestinarren bizimoduaren eta ondarearen oinarri da. Uzta biltzeko garaian kolonoen erasoak areagotzen dira, nekazariak egoera jasanezinean aurkitzen dira: ezin dituzte beren lursailak segurtasunez zaindu edo beren uztak bildu. 2023ko azken bilketan, oliba gehienak



ZEV REINSTEIN

Kolonoek lantzen dituzten datil gehienak esportaziorako dira; %80 Europar Batasunera esportatzen dira, eta Israeliek Europara egiten dituen esportazio guztien %15 dira. Argazkian, israeldarren datilak palestinarren lurretan.

jaso gabe geratu ziren Israelgo neurri zapaltzaileen ondorioz. Testuinguru horretan, UAWCko kideak adierazi zuen oliba uztaren garaian atzerriko boluntarioak egotea oso garrantzitsua dela, Israelen erasoetatik babestuago daudelako. Baina, noski, egungo egoerak ez du atzerriko jendearen presentzia errazten.

UAWC irmo mantenduko da nekazari palestinarren defentsan eta elikadura-burujabetzaren defentsan, askatasunaren oinarriko ardatz gisa, sindikalista palestinarrak azaldu zuenez.

Gaur bi eskaera ditugu. Alde batetik, gabonetako bazkarietan tokiko eta sasoiako produktuak kontsumitzera gonbidatzen zaituztegu, baina etxean datilak jateko ohitura baduzue, adi non eta nola ekoiztu diren. Kolonoek lantzen

dituzten datil gehienak esportaziorako dira; %80 Europar Batasunera esportatzen dira, eta Israeliek Europara egiten dituen esportazio guztien %15 dira. Beraz, datilei boikota egiteak (besteak beste), oztopatu egiten du palmondoen bideragarritasun ekonomikoa okupatutako lurretan.

Bestetik, Bizilurrek eta UAWCk sustatutako *gosetea Gazan geratu* kanpaina (#StopGazaStarvation) babestea. Elikagaiak, ura eta bizitzarako funtsezkoa dena bermatzeko kanpaina da, horrela, potentzia okupatzailearen krimenak gogorak izan arren, lurraldean mantentzeko herriaren erresistentziari lagunduko diogu.

Elikadura-burujabetzaren garrantziaz jabetuta, jarrai dezagun 2025ean ere ortzi muga horri eusten. ●

A ZE FAUNA!

EZ NAIZ SAGUA, EZTA SATORRA ERE;
LURSAGUA NAIZ

IRATI DIEZ VIRTO

Ugaztun hitza entzutean, askotan burura etortzen zaizkigun lehen ordezkariak tamaina handienekoak izan ohi dira: hartza, otsoa, oreina... Batzuetan etxekotutako katua edo txakurra dira agertzen lehenak, edo urruneko lehoiak eta elefanteak. Ikusgarritasunak lehia irabazi ohi dio ugaritasunari, are gehiago ugarienez ospe txarra dutenean, karraskarien kasuan bezalaxe.

Munduan, karraskariena da ugaztunen artean talde anitzena. Gaur egun, 2.000 espezieetik gora ezagutzen dira, eta horrek ugaztun guztien %40 hartzen du, gutxi gorabehera. Euskal Herrian, berriz, karraskariak bigarren postuan daude aniztasunari dagokionez, saguzarren atzetik (izenean "sagu" barneratuta duten arren, ez baitira talde berekoak). Karraskari ezagunenak xagua eta arratoia ditugu seguruenik, baita fobia gehien pizten dituztenak ere. Baina bi "etsai" famatu horiez gain, gure lurraldean beste hamabost karraskari espezie ditugu. Gaurkoan, askorentzat oharkabean pasatzen den bat ezagutuko dugu: landa-lursagua.

Itxura borobileko eta belarri eta isats motzeko animaliatxo hau nahasten erraza izan daiteke, itxuraz saguekin baitu antzekotasun handiena, baina bizimoduz satorrekin. Izatez, izenak berak nahikoa pista ematen dizkigu: lurrean bizi den "sagua". Animalia hauek bizitza gehiena lurrazpian ematen dute. Bertan barrunbe esferiko bat eraikitzen dute lurrazaletik 30-50 cm-ra, beren habia dena, eta hura kanpoalde-

LANDA-LURSAGUA
Microtus arvalis

TALDEA: Ornoduna / Ugaztuna / Rodentia.

NEURRIA: 96-122 mm-ko gorputza eta 28-42 mm-ko isatsa.

NON BIZI DA? Belar edo zuhaixka asko dagoen eremuak ditu atsegin, baina hainbat habitatetan aurki daiteke.

ZER JATEN DU? Belarjale hertsia da, landare dikotiledoneak ditu gustukoak.

MEHATXUAK: Nekazaritza intentsiboa eta pestizidak.

BABES MAILA: Ez dago babestuta.

rekin konektatzen duten hainbat galeria eraikitzen dituzte. Galerien sarrera- irteerak, ordea, ez dira satorren lurrezko menditxo identifikagarri horien itxurakoak, lurzoruko zulo biribilak baizik.

Habia horietan landa-lursaguen elikagaiak pilatzen dituzte, kumeen babesleku ederra ere badira, eta lotarako ere erabiltzen dituzte. Eme bakoitzak bere habia eraiki ohi du, baina, bitxiki, batzuetan emeen artean partekatu egiten dute habia; bost emek habia bera erabili dezakete, eta denek batera defendatzen dute.

Tamaina txikiko animalia askotan gertatzen den legez, landa-lursaguen bizitza ez da oso luzea izaten. Espezie honetan jaiotzen diren animalien %65 soilik iristen da hilabete bat betetzera, eta batzuetan beste 4,5 hilabete bizi dira. Gehienak ugaltza eta gutxira hiltzen dira. Alabaina, hilkortasuntasun altuari aurre egiteko animalia txikiek erabiltzen duten estrategia (r estrategia) kume asko izatea da. Landa-lursaguen populazioek eztanda demografikoak izan dituzte azken urteetan, eta duela urte batzuk nekez ikusten baziren ere, gaur egun ingurune askotara zabaldu direla dirudi.

Animalia hau, beste hainbeste bezala, ezezaguna zen gutako askorentzat, baina horrek ez du esan nahi inondik ere berezitasun falta duenik, ezta garrantzia gutxiago duenik ere txikia izateagatik. Ez da sagua, ezta satorra ere; lursagua da, berezia. Eta ez da bakarria. Euskal Herrian beste sei lursagua espezie ditugu, bakoitza bere berezitasun eta ezaugarriekin. ●



Sareko,
gure elikagai ekologikoen bilatzailea.

ekolurra.eus



Euskadiko Nekazaritza eta
Elkadura Ekologikokoaren
Kontseilua
Consejo de Agricultura y
Alimentación Ecológica
de Euzkadi

Babesleak:

Euskadi, auzolana



Europar Batasunak
kofinantzatuta

ILARRAREN ENTZUMENA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Laster urte guztian izango ditugu malko ilar goxoak (*Pisum sativum*). Oraindik, ordea, negua eta udaberria dira, ia erabat ilar freskoak jateko sasoi; udaberrian jango ditugun azken ilarrak ereiteko garaia orain hasten da. Eta oraintxe jango ditugu urria aldera erein zirenak.

Gregor Mendele (1822-1884) "legeak" esaten zaien genetika modernoaren hiru oinarriak frogatzeko saioak ilarrekin egin zituen. Harrezkero, polinizazioaren garrantziaz, hibridazioaz, hazien nahasketa genetikoaren muntaz eta truke sexualak dakarren ondorengotzaren eraketaz are gehiago jantzi gara. Animalio landareak bezalaxe dantzaten gara genetikan.

Ilarrekin egiten du lan, baita ere, Monica Gagliano biologo eta ikerlari italiarrak. Gagliano itsas ekologiararen arloan aritu zen lehen, eta Australiako Hesi Handiko arrain batzuen ikerketan trebatu zen. Ikerketaren amaieran arrainak hil eta diseinatu behar zituen. Arrainek ohitura, bere esku artean igeri egiten zuten egunero, baina, azken agurrerako joan zenean, uko egin zioten zirrikietatik atera eta bera agurtzeari, esku artean zer asmo zuen jakingo balute bezala. Horrek krisi etiko eta profesionala sortu zion Gaglianori. Azterketa amaitu bai, baina



zientziaren izenean sekula gehiago ez zuela hilko zin egin zuen. Animalien zientzia utzi eta landareenean murgildu zen. Arrainek sentimendua bazutenaren zantzua beste bizi-forma batzuetako sentikortasuna aztertzeraz bultzatu zuen.

Egun, landareen adimen, oroimen, komunikazio eta eman-hartuaren inguruan lan egiten du, Lismoreko Southern Cross Unibertsitatean, Adimen Biologikoko Laborategiko zuzendari. 2012an arto landareek (*Zea mays*) igortzen zituzten hotsak erakutsi zituen. 2014an argitaratu zuen bere lanik ikonikoena: minberak (*Mimosa pudica*) ikasteko, oroitzeko eta, ondorioz, egoeretara egokitzeko duen gaitasuna azaldu zuen. Egun, ezagunen egin duen bidea lantzen du: landareek

entzun egiten dute. 2017an, ilarrek uraren mugimenduak sortzen duen antzeko hots bat entzuten dutela eta sustraiak harantz luzatzen dituztela frogatu zuen.

Edozein bizidunek, garuna izan edo ez, ikasteko, adimena garatzeko, oroimena eraikitzeko eta abarretarako gaitasuna duela dio. Eta sutuki defendatzen du zientzia ahalguztidunaren izenean egiten diren ikerketetan bizidun guztiek pertsona bati emango litzaiokeen tratu bera merezi dutela. Zientzia totemiko zurrunik

bezala, xamanekin eta landareekin eman-hartu berezia duen jende askorekin ikasi du. Ondorioz, elkarbide sakona landu du landareekin, eta laborategiko esperimenterarako diseinuak iradokitzea eta ikerketa-arazoak ebazteko berarekin lankidetzan aritzea eskertzen die.

Liburu mordoxka argitaratua, ikastaro eta hitzaldi ugari egingo dira eta elkarriketa interesgarri franko emana da dagoeneko. Webgune polita du, monicagagliano.com; azalean hau dio: "Alderrai dabilen guztia ez dago baldin". Eta, amaieran, musikarekiko eta pinturarekiko bere go-goak azaltzeko Thomas Mooreren esaldi bat dakar: "Arimak sorginkeriararen ohi-txangoak egiteko behar absolutua eta ahaztezina du". Goaztean ba! ●



Zigilu hauen atzean, zapora on eta kalitate handi bat baino askoz gehiago dago. Klima eta paisaia paregabeak. Jakinduria eta lana daude.

HEMEN DAGO NAFARROA



ReynoGourmet.com

EKIN DULANTZI

NEKAZARITZAKO
ELIKAGAIEN TEST GUNEA
DULANTZIN

GARAZI ZABALETA

Gero eta nekazaritzako test gune gehiago ditugu inguruan, hau da, nork bere proiektua martxan jarri aurretik nekazaritzan eta abeltzaintzan trebatzeko guneak. Nafarroako Zumbeltz espazioa eta Gipuzkoako eta Ipar Euskal Herriko Trebatu dira horietako zenbait adibide, gurean. Ekainetik hona, Arabako Lautadan filosofia berarekin martxan jarri duten bestelako egitasmo bat ere bada: Ekin Dulantzi. “Jatetxe bat izandako eraikinean, Erausquyn gunean, probak egiteko sukaldea jarri dugu martxan, jendea hainbat jardueratan trebatzeko”, azaldu du Arantza Arrien Goitiandia teknikariak. Arabako Lautadako Landa Garapen elkarteak bultzatuta abiatu dute ekimena.

TOKIKO PRODUKTUEI LOTUTA

Arabako Lautadan ekoiztitako produktuak bertan kontsumitzeko ildoan, hainbat proiektu dituzte martxan garapen elkartetik. Dulantziko sukaldearen kasuan, lau jarduera planteatu dituzte, horietakoren batean trebatu nahi duenari beharrezko azpiegitura eskaintzeko: prestatutako platerak, kontserbak, desidratatuak eta okintza eta gozogintza. “Sukaldea ikustean, segituan pentsatu genuen eraldaketetarako gune oso aproposa zela, eta herritarren artean interesik bazegoen ikusteko bilera irekia deitu genuen”, azaldu du teknikariak. 2020an izan zen hori, eta deialdira agertu zirenen artea bederratziz emakumeak ziren, jarduera horietakoren batean hasteko gogoz. “Argi zegoen premiarik handiena zein kolektibotan zegoen, emakumeak baitziren gehienak, eta horien artean, asko migratuak”, dio.

Eusko Jaurlaritzako dirulaguntza batekin kontserbak egiteko autokla-



bea, desidratatuentzako haizagailua, okintza eta gozogintzarako labea, hartzigailua eta beste zenbait tresna erosi eta gunea prestatu zuten. “Nekazaritzako elikagaien test gunea izatea nahi dugu, jendeak inbertsio handiak egin baino lehen, ideiak probatzeko toki bat izatea”. Sukaldea erabiltzen dutenei Lautadako eta hurbileko produktuak erabiltzea eskatzen diote elkartetik. “Kontserbak egiten ditu pertsona batek momentu honetan, eta hemen ekoizten diren babarrun eta garbantzuak darabiltza, bertako hiltegiko oilaskoen gibelarekin pateak egiten du...”.

EKAINETIK MARTXAN


Sukaldeko eraldaketa guneaz gain, eraikinak espazio gehiago ere baditu, eta beste jarduera batzuetarako aprobetxatzen ari dira horiek. “Formakuntzarako gune bat eta erabilera anitze-

rako beste bat ditugu, eta *coworking* gune txiki bat ere bai”, azaldu du Arriek. Osasunarekin eta elikadurarekin lotutako jarduerak bultzatzea da asmoa.

Hilabeteotako martxarekin pozik daude, profil anitzeko jendea ari baita pasatzen Dulantziko gunetik, eta horietako zenbaitek honezkerok martxan jarri dute haien proiektua. “Aguraingo emakume baten ilusioa okina izatea zen, ekainean hasi zen hemen probak egiten, ogia ezagunen artean banatzen, eta ikusi zuen benetan horretatik bizi zitekeela”. 22 pertsona eta taldek egin dute gunea erabiltzeko eskaera. Aurrera begira, desidratatuen ildoan sakondu nahi lukete. “Hainbat formakuntza egin ditugu gaiaren bueltan, eta barazki, fruta eta belar asko hainbat modutan desidratatzeko aukera dagoela ikusi dugu”, amaitu du. ●



Hitz gezidunak

BOZAK ----- JOKO, OLGETA		ENPRESA BATEAN JARRITAKO DIRUA ----- LUTEZIOA		SASITZA	 DANI BLANCO / ARGIA		ERTZ, BAZTER ----- ANDIA MEN- DIZERRAKO MENDIA		ATSEGIN EMATEKO NORBAIT UKITZEA ----- BALDRES		HERREN ----- ZAINZAILA
TUPARRIA ----- BEGIRADA							UNE, DENBORALDI ----- TRUKE				
		ISLANDIAKO DOMEINUA ----- NIGERKO HIRIBURUKO BIZTANLE		PERTSO- NAIAREN IZENA ----- LANDARE ALEDUNA		TXIRRINAREN HOTSA ----- AHITU, BUKATU					
ANTIGUAKO LAGUN ----- EGUZKIA								PERTSO- NAIAREN ABIZENA ----- LAKA HARTU			
				TXITXARDINA ----- ORGAZAIN, ORGA GIDARI						DAUKA ----- LOGALEA	
SAMARIAKO HERRITAR	SORO ----- ADAR MULTZO				ARDIEN GAIXOTASUNA ----- PLATER HANDI						ONEZ ..., ASMO ONEZ
							ELEMENTU KIMIKO ----- ALOR				
LETRA IZENA ----- OREA EGITEKO ASKA		GAZTAROAN DAGOENA ----- R HIRUTAN							GINEBRA ----- SALDU ADITZAREN ERROA		
				ARTERIEN TAUPADA SEGIDA ----- A BIRRITAN							EKIALDE ----- 501, ERROMATAR ZENBAKIZ
ETENIK EZ DUENA ----- GERRIONDO						MUGAZAINA ----- DEBYE					
								ADINA, BEZAINBAT			

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	8	6		1				2
		7						
1		5	4		2			9
		1	3		4			7
	6	8	2	5	1			
3	2				9			1
8				9	5			7
5		3		4		2	6	
	7		1	3	4			

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Fin bihurtu.
2. Zezen zikiratuak.
3. Potasio nitrato.
4. Urak dakarrena urak...
5. Ukamenak.

EBAZPENAK

1. FINDU
2. IDIAK
3. NITRO
4. DAROA
5. UKOKAK

5	8	4	3	2	1	6	7	9
6	9	2	4	7	8	5	3	1
8	4	2	6	9	5	3	1	7
3	2	4	8	7	9	6	5	1
7	6	8	2	5	1	9	3	4
9	5	1	3	6	4	8	7	2
1	3	5	4	8	2	7	9	6
2	9	7	5	3	6	1	4	8
4	8	6	9	1	7	5	2	3

G	E	R	R	E	D	E	L	D	E	N
J	V	R	V	A	I	P	L	V	A	R
M	V	A	R	A	V	A	L	S	U	E
D	E	E	G	V	A	Z	V	E	G	I
S	V	M	V	A	R	I	V	A	R	O
E	K	I	V	A	N	V	A	G	U	L
V	I	L	N	V	A	R	V	A	R	P
S	O	S	I	S	I	Y	T	I	R	R
J	L	O								
B	K	R								



Globo morean

AINHOA MARIEZKURRENA ETXABE  ZTANDAP

Laugarren pareta hautsi eta zuzenean, zutik eta beldurrik gabe interpelatzen du publikoa *stand up*-ak. Eguneroko egoeren bitartez bizitzarekiko ikuspegi bat umoretik konatatu eta publikoan eragitea da *ZtandaP*.

Durangoko Azokak 200 bat ekitaldi antolatatu ditu aurtan, tartean Szenatokia batak bestearen atzetik eskaini diren hamar pieza labur. Kultur Guneko ilarak, ordea, bazituen kasik 500 metro. Jendea, kontsumo gosez, edonon eta edonola zegoen, ikuskizun baterako zein besterako hartzaileek bat egiten zutelarik. Izan ere, aforo kontuak medio, mugak jarri behar izan zituzten hainbatetan, jendea kanpoan utzita. *ZtandaP* ikuskizunaren aurretik bazegoen beste monologo bat eta ondoren ikus-entzunezko baten proiektzioa. Ez dakit hau ikustera sartu zen jendeak espreski nahi zuen hau ikusi, baina aretoa leporaino zegoen.

Zaila da ukatzea, era berean, bi ema-

kume umoregilek sortzen duten espetatiba eta zirrara. Gero eta gehiago zabalitzen ari da Euskal Herrian bakarrizketa eta umoregilearen diziplina. Esparru horretan, ordea, txikia da emakumeen presentzia, eta horren jakitun datoz Mirari Martiarena eta Idoia Torrealdai. Hirugarren lana da *ZtandaP*, eta honetan generoa bera izan dute umorea egiteko zio.

Koloredun bi txaketa soinean sartu dira eszenara, jarrera freskoarekin publikoak limurtzera. Bakarrizketetan askotan entzun diren gaiak dakarzkite oholtzara: maitasuna, etxeko lanak, orgasmoak, ligatzeko moduak... Nola banatzen dira etxeko lanak, eta zein jarrera hartzen du gizonak eta zein emakumeak? Harreman sexualetan komunikatzeko gaitasunik ba al dugu, eta zer gertatzen da ez dagoenean? Zergatik sexualizaten da hanka beroak dituen norbait bilatzen ari naizela esateak? Galdera serioak dirudite. Eta badira. Hain zuzen, horregatik planteatu

ZTANDAP

NORK: Mirari Martiarenak eta Idoia Torrealdaik.

NOIZ: abenduaren 6an.

NON: Durangoko San Agustin kultur gunean.

dituztela esango nuke, aldarrikapenerako borondate batetik eta publikoari erantzunak emateko asmoz.

Umorea eta barreak edonolakoak izanagatik ere, gaia zein ikuspegia ez zaizkit berritzaileak iruditu. Gizonak eta emakumeak nolakoak diren hitz egiten duten hamaika bakarrizketa ikus-entzun ditugu, gehienetan klitxez betetakoak eta guztietan genero desberdintasuna oinarri dutela. Martiarenak eta Torrealdaik ez dute horrekin hausten. Gai berak landu dituzte eta emakumeen ahotsetik konatatu. Egia da horrek baduela jada umorea eta zapalkuntza soila ez den trataera, besteek ez bezala, kontakizuna ez baita goitik beherakoa kasu honetan. Baina ez ditu estereotipoak benetan hausten, baizik eta, fokoa lekuz aldatuta, errealitatearen beste alde bat ikustea dakarrela. Dena den ikuslegoa barrez lehertzea lortu eta pentsamendu globalen jostorratza sartzea. ●



Politono bat entzun nahi?



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

PLEIBAK MIREN AMURIZA PLAZA SUSA, 2024

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Miren Amurizaren bigarren eleberria argitaratu du Susak Durangoko azokaren atarian: *Pleibak*. Aurretik egindako grabazio baten gainean kantatzen ari zarelako antzerkia egitea da pleibak egitea. *Berria*-n Ainhoa Sarasolak idatzitako artikuluan jasotzen da Amurizak esandakoa: lengoia propio bat asmatzea ere bada pleibak egitea. Izan ere, nobelaren ezaugarri azpimarragarrienetariko bat da idazleak eraiki duen estiloa. Alde batetik, nerabe baten hizkeratik gertu egon nahi duen molde bat aurkituko dugu, euskarazko egiturak dituen baina erderatik hartutako hitz, esamolde eta abar erabiltzen dituen: *txinada, petatuta, deskojonatzen, engorilatzen*. Liburuaren kontraportadan jartzen duen bezala, zikinak jandako hizkuntza batekin eraikia. Beste alde batetik, euskalkian hitz egiten duten pertsonaia daude. Ahozkotasuna man-

tentzen du testuak, baina pertsonaia hauen euskara garbiagoa da.

Nerabezaroan lagunak izan diren bi pertsonaien istorioa ezagutuko dugu liburuan. Laguntasun harremana zergatik apurtu zen ulertu nahian-edo Jonek Pollyri idatzitako eskutitz moduko bat dela esanenez, hasierako agurrik eta formalidaderik ez duena. Urte dezente geroago Jonek ikasturte hartan gertatu zen horren inguruan gogoratzen dituenak eta pentsatzen dituenak idatziko ditu. Bazueta haserre tonuan, bestetan tristura moduan. Gehienetan mina dario liburuari.

Kontakizunak beste garrantzia du garaia. Erreferentzia musikalek, zinematografikoei, telebisiboei biltzen dute kontakizuna. Bertoko erreferentzia kulturalak daude (Oliba Gorriak, Goenkale, Hemendik At!). Baita estatukoak edo internazionalak ere (Aída telesaila, Spice Girls, Hermione Granger, Friends...). Quicksilver, filipinos edo po-

wer point. Hogeitamarrenean gaudenok etxean bezala sentiarazten gaituzten markak. Txorizo Pamplona txokolaterekin: gure aurrekoek agian probatu ez zuten konbinazioa; ondorengoentzat grasa txarra eta azukrea batzen dituen benenoa.

Lau kapitulutan banatutako berrogei kapitulu motzez osatu du liburua Amurizak. Erritmo bizia du testuak, azkarra. Txinpartak eragiten ditu. Ahoz gora irakurtzeko gogo. Ikusi egiten duzu irakurtzen ari zarena. Guk ere kantatu genuen *is a barbi guel ama beibi gueeee*. Pleibak egiten jarraitzen dugu.

Izango da hizkuntza manejatzeko idazleak erakutsi duen abileziagaittik, istorioak piztuta mantendu didalako irakurtzen segitzeko gogo, egiten duen garaiko kronikan gure gaztetako isla ikusi dudalako... Izan daiteke honen guzti honen konbinazioa, baina *laostia* da liburua, *a saco* gustatu zait. ●



MUSIKA

Xabier Badiolaren gitarra: zaharra zena, berri


XALBA RAMIREZ

Ea, ba. “Gaur egungo musika” musika deitzen zaio erritmo kutxa elektronikoko bat duen edozeri, eta, klaro, horrela ezin da. Lerro hauetan saiatu izan gara erakusten etiketek eta modek nahastu gaituztela eta transmisio eskasari esker, galdua dugula euskal musikaren genealogia. Eta Artze zaharrak beti arrazoi: “Atzeak erakusten du aurrea nola dantzatu”.

Honela datorkigu Eibartik Xabier Badiola gaztea, 1960ko hamarkadako folk-rock estiloari fidel-fidel, berri-berria den disko bat proposatuz. Denboraren makina bat da. Nola ulertu horren ondo estilo bat eta berrinterpretatzeko gai izan, efektismoetan erori gabe? Ez tranparik, ez kartoirik hemen. Zuri beltzezko Eibar industrial bat, besterik ez. Eta aho-tsa eta gitarra.

Folk-rock ingelesetik edanagatik ere, euskal tradizioan bilatu ditu erreferenteak, eta “Katebegi galduak” deitu zaion ildoari jarraipena eman asmo ziola onartu du: Izukaitz, Haizea, Itoiz, Koska, Errobi... Ikerketa lana du atzetik diskoak, baina hoberena da oharkabean pasatzen dela. Dena berezkoa balitz bezala, beste molderik ez balitz bezala. Jolas interesgarria izan daiteke topatzea kantu bakoitzari nazioarteko, zein bertako lehengusinarik. Ni hasiko naiz: *Euritan blai*-k eraman nau The Beatlesen *Blackbird*-era, eta Txomin Artolaren *Txakurraren Partia*-ra.

Badiolak diskoa osorik ingelesez idatzi zuen hasiera batean. Hark kontaktzen duenez, Bilboko kaleetan hainbat orduz edaten diren garagardoez lagunduta, lagun batekin eztabaidan, erabaki zuen



XABIER BADIOLA

XABIER BADIOLA

GAZTELUPEKO HOTSAK, 2023

bere diskoak euskaraz behar zuela, “zintzotasunagatik”. Eta berak ere onartzen du, diskoa ez dela bera, horri esker.

Pentsa. Disko goxo, berezi, misterio-tsu eta teleportatzaile hau entzungo bagenu ingelesez, frantsesez edo swahiliz. Akordeak eta melodiak polita askoak lirarteke, baina meh. Zeri lotu, zergatik konprometitu? Auzia hortik doalako beti, edo ia beti: konpromisoak konpromisoa sortzen du. Euskaltzaletasun senetik gertu egon beharrik gabe ere, euskarari esker lortu du lurra eta lortu du zentzua lan honek.

2023koa da lana, eta lagun ugarik gomendatu arren, orain arte ez nau diskoak ni konprometitu. Eta esango nuke bakarrik joaneko bidaia bat dela hau. Eta iturrietara itzultzeko, beti iturrietara itzultzeko gonbidapena. Baina kasu, e, Andoni Tolosak *Berria*-n esan legez: “Nola da posible hain molde jakineko disko bat hain fresko gertatzea?”. Erantzuna, argia: “Ez da nostalgia”. ●



Baltasar Garzonen Casablanca-ko eszena

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Denak *Marseillesa* birika be-
tean kantatzen hasi dira sol-
dadu alemaniarren aurrean
eta Louis Renault jendar-
meriako kapitainak, kolaborazionis-
ta leiala baita, amen-amen egingo dio
Heinrich Strasser ofizial naziari: itxi
berehala Ricken taberna, kanpora de-
nak hemendik. Orduan, klaro, Rick es-
plikazio eske joango zaio, ea zertara da-
torren agindu hori. Jendarmeak, lokala
ixteko aitzakia hoberik ezean, antzerkia
egingo du: “Eskandalizatuta nago! Es-
kandalizatuta! Hemen jendea apustuak
egiten ari da!”. Eta, justu orduan, Ricken
tabernako langile bat gerturatuko zaio
Renaulti, gau hartan apustuetan irabazi
duen dirua ematera. “O, eskerrik asko”,
esan eta hantxe jarraituko du, lekuak
husteko aginduak ematen. *Casablanca*.
Aspertzearaino aipatzen den pelikula
topiko horietako bat, bai; baina hain
gaurkoa, hala ere.

Ez dakit inoiz pelikularen *remake*-a
egitea bururatuko zaien –zinki, ezetz
espero dut–, baina inork okurrentzia
hori buruan bueltaka balu, uste dut aur-
kitu dudala Claude Rains aktorearen
ordez jendarme kolaborazionista gai-
nantzeztuaren papera egiteko pertsona
perfektua: Baltasar Garzón.

Super-epaile ohiaren adierazpen bat
irakurri dut pasa den asteko egunkari
batean: “Orain nire zalantzak dauzkat,
eta oso arrazoizkoak, sistema judicial
espainiarraz”.

Bi eskuekin muturrari estu-estu eu-
tsi behar izan diot eztarrian gora etorri
zaidan potakarrak pantaila osoa zikin-
du ez zezan. Eskuak libre edukitzearen
bentajak. Ez zuten pribilegio hori beste
batzuek, burua bainera nazkagarri har-
tan behin, eta berriro, eta berriro, eta
berriro, eta berriro, eta berriro sartzen
zietenean, behingoz ito eta dena bukatu



zedin desiratzeraino; baina ez, ez zen
bukatzen, ez zen inoiz bukatzen, gon-
bitoka egin konortea galdu esnatu kol-
peak saihetsetan kolpeak buruan kol-
peak barrabiletan pistola baten kanoia
aluan elektrodoak poltsa gainean pixa
egin burdinazko barra bat ipurtzulo-
tik eta berriro bainera, eta berriro, eta
berriro, eta berriro. Eta saioa bukatzen
zenezan ekarriko zuten beste bat. Erri-
tual bera. Irudimentsu ez baldin bazeu-
den behintzat, harako hartan bezala,
hurrengo torturatuari aurreko tortura-
tuaren botaka jateko builaka agintzen.

Zikin horietan ez zuen eskurik epai-
leak, noski. Berak izenak tekleatzen zi-
tuen, autoak idazten, oraingoan hau,
hura eta bestea. Atxiloketa inkomuni-
katua. Bost egunen ondoren ikusten
zitzen bere bulegoan txosten horien
emaitza materialak. Ehunka izan ziren,
urtetan, beraren aurretik deseginda

pasa ziren pertsonak, bizitzaren parte
bat betirako soto ilun haietan utzi zu-
tenak; eta, hala ere, jasandakoa salatu
zutenak.

Begiratu ere egiten ote zien Garzo-
nek. Entzun behintzat ez. Basakeria ho-
riek argitzeko ikerketarik agindu gabe
utzi zuen judikatura, lehenago edozer-
tarako barra librea eman zioten indar
faktiko berberak ostikatuta. Mendea
lehen laurdena betetzera doa eta, aitor-
tu ez den kaltea barkatzea ezinezkoa
denez, gutxienez ahaztu nahi genuke
haren izena. Baina hor dabil, hedabi-
deetan espantuka, entzuteko prest da-
goenari kontatzen jende oso gaiztoa
dabilela toga jantzita.

“Orain nire zalantzak dauzkat, eta
oso arrazoizkoak, sistema judicial es-
painiarraz”. Renault kapitaina eskan-
dalizatuta dago, taberna honetan apus-
tuak egiten dira. ●



Oparitu ARGIA

→ Zer ari naiz oparitzen?

ARGIA astekaria paperean astero.
Larrun paperean hilero. Urtean behin
Gakoak aldizkari berezia, udako oporretan.

→ Zenbat balio du?

Zuk erabakiko duzu zenbat diru
jartzeko prest zauden proiektu honen
alde, urtebeteko harpidetzaren truke.

→ Zer bidaliko didazue niri?

Etxera bidaliko dizugu, opari gisa emateko
bonua gutun-azal berezi batean. Ordainketa
egitean bonua PDF formatuan ere bidaliko
dizugu, zuk zeuk inprimatu nahi baduzu.

→ Noiz hasiko da?

Harpidetza oparia jaso duenak bonua
aktibatzean hasiko da eta urtea
amaitzen denean ez da automatikoki
berrituko.

Arabako Errioxa

naiz

Eta nire
etiketan
esanda dago
dena.

Nire jatorriaz
hitz egiten duelako,
kalitate berdingabeaz,
esperientziatz, berrikuntzaz.

RIOJA
DENOMINACIÓN DE ORIGEN CALIFICADA
RIOJA ALAVESA



← Saltoki eta
jatetxeetan arretaz
begiratu etiketari;
Arabako Errioxa
jarri behar du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ELIKADURA, LANDA GARAPEN,
NEKAZARITZA ETA
ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN,
DESARROLLO RURAL,
AGRICULTURA Y PESCA